


ERALDATZEN IKASTEKO ZIRRARA

haurren eskubideak eta parte-hartzea

- No discriminación.
- Interés superior.
- Derecho a la vida a la supervivencia y a la

Argitalpen elektronikoak






ERALDATZEN IKASTEKO ZIRRARA

haurren eskubideak eta parte-hartzea

Argitalpen elektronikoak



Educo, 2015 abendua

Argitalpen elektronikoak

Lege depositua: B-9950-2016 (paperezko edizioan)

Koordinazioa eta erredakzio:

Olga García eta Crac Taldea - Parte hartzerako hezkuntza.

Produkzioa:

Elisenda Gonzalez, Gema Luengo, Iratxe Mentxaka, Jaime Machicado, Juanvi Plaza, Miguel Rodríguez, Montse Bobes eta Paula Rojas.

Zuzenketa:

Christine Antunes

Itzulpena:

Labayru

Ilustrazioak:

Agustín Garriga

Edizio diseinua:

Manuel Romero Higes

Esker onezko aipamenak:

Eskerrak ematen dizkiegu, bereziki, irakasle eta hezitzaileekin batera, jarduerak probatuz, baliozkotuz eta hobetuz material hau ontzen parte hartu duten haurrei:

Foro Infantil de Rivas Vaciamadrid (Madrid)

Kukua – eskulio arriskuan dauden Getxoko (Bizkaia) haurrentzako eskola proiektu laguntzailea

Agora – Sant Cugat (Catalunya)

Consejo de Infancia de Mataró (Catalunya)

Colegio Santiago Apóstol – Cabanyal (Valencia)



Publikazio honetako edukiak Creative Commons 3.0 Unported lizentziari loturik daude. Horien helburu komertzialik gabeko erreproduzioa eta difusioa baimentzen da, beti ere iturria aipatzen delarik. Obra honetako edozein motatako alterazioa, transformazioa zein deribazioa honen antzekoa den lizentzia berdinarekin soilik banatu daiteke.

Dokumentu honetan landutako gaien inguruko informazio gehiago lortzeko, kontaktuan jarri helbide honekin:
docencia@educo.org



1. SARRERA GISA

orrialdea 9

2. AURRETIAZKO ZENBAIT OHAR

orrialdea 11

3. ESKULIBURUA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK

orrialdea 13

4. HAUREN ESKUBIDEEI ETA PARTE-HARTZERAKO

HEZKUNTZARI BURUZ

orrialdea 19

5. LANSAIOAK

orrialdea 25

- Eskubideen txokoa (3-12 urte)

orrialdea 26

- Gure maskotaren eskubideak (3-8 urte)

orrialdea 28

- Ontzi batean kontinente berri baterantz (9-12 urte)

orrialdea 30

5.1. TALDEA SORTU

orrialdea 32

5.1.1. 3 eta 5 urte artekoen taldeak

orrialdea 33

1. saioa

orrialdea 33

- a) Eskubideen txokoa
- b) Sute-itzaltzaila
- c) Txaloak zuzentzen
- d) Ebaluazioa

2. saioa

orrialdea 34

- a) Eskubideen txokoa
- b) Lankidetzajokoak I: denok dugu zer batu
- c) Lankidetzajokoak II: puxika-trena
- d) Ebaluazioa

5.1.2. 6 eta 8 urte artekoen taldeak

orrialdea 36

1. saioa

orrialdea 36

- a) Eskubideen txokoa
- b) Inklusioko eta identitateko dinamika
- c) Ebaluazioa

2. saioa

orrialdea 37

- a) Eskubideen txokoa
- b) Lankidetzajokoak I: amarauna
- c) Lankidetzajokoak II: Lankidetzaulkiak
- d) Ebaluazioa

5.1.3 9 eta 12 urte artekoen taldeak

orrialdea 40

1. saioa

orrialdea 40

- a) Eskubideen txokoa
- b) Irudi-antzerkia
- c) Ebaluazioa

2. saioa

orrialdea 40

- a) Eskubideen txokoa
- b) Lankidetzajokoak I: marka uzten duen zuhaitza
- c) Lankidetzajokoak II: labirintoa
- d) Ebaluazioa



5.2. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

orrialdea 44

5.2.1. 3 eta 5 urte artekoen taldeak

orrialdea 45

1. saioa

orrialdea 45

- a) Eskubideen txokoa
- b) Irudizko pilota
- c) Kontatu ipuin bat
- d) Ebaluazioa

2. saioa

orrialdea 46

- a) Eskubideen txokoa
- b) Laukitxoren horma-irudia
- c) Ebaluazioa

5.2.2. 6 eta 8 urte artekoen taldeak

orrialdea 48

1. saioa

orrialdea 48

- a) Eskubideen txokoa
- b) Telefono hondatua
- c) Taldeko jagoleak
- d) Ebaluazioa

2. saioa

orrialdea 50

- a) Eskubideen txokoa
- b) Gorputz-hitzak
- c) Parte-hartzerako tresnak sortzeko tailerra
- d) Ebaluazioa

5.2.3 9 eta 12 urte artekoen taldeak

orrialdea 54

1. saioa

orrialdea 54

- a) Eskubideen txokoa
- b) Eskultura
- c) Aulkien jokoa
- d) Ebaluazioa

2. saioa

orrialdea 58

- a) Eskubideen txokoa
- b) Molekulak
- c) Iritzi-erruleta
- d) Ebaluazioa

5.3. PROIEKTUA DEFINITU

orrialdea 61

5.3.1. 3 eta 5 urte artekoen taldeak

orrialdea 62

1. saioa

orrialdea 62

- a) Eskubideen txokoa
- b) Zapata bidaiazaleak
- c) Ebaluazioa

2. saioa

orrialdea 62

- a) Eskubideen txokoa
- b) Nola gustatuko litzaidake izatea...
- c) Ebaluazioa



5.3.2. 6 eta 8 urte artekoen taldeak

orrialdea 64

1. saioa

orrialdea 64

- a) Eskubideen txokoa
- b) Detektibe aztarnagabea I
- c) Ebaluazioa

2. saioa

orrialdea 65

- a) Eskubideen txokoa
- b) Detektibe aztarnagabea II
- c) Ebaluazioa

5.3.3. 9 eta 12 urte artekoen taldeak

orrialdea 68

1. saioa

orrialdea 68

- a) Eskubideen txokoa
- b) Munduari begira

2. saioa

orrialdea 70

- e) Eskubideen txokoa
- f) Bidaia baten ametsa

5.4. EKINTZARA PASATU

orrialdea 72

5.4.1. 3 eta 5 urte artekoen taldeak

orrialdea 73

1. saioa

orrialdea 73

- a) Eskubideen txokoa
- b) Nazioarteko egunak zaintzen
- c) Ebaluazioa

5.4.2. 6 eta 8 urte artekoen taldeak

orrialdea 75

1. saioa

orrialdea 75

- a) Eskubideen txokoa
- b) Irakurleen aitabitxiak eta amabitxiak
- c) Ebaluazioa

5.4.3 9 eta 12 urte artekoen taldeak

orrialdea 77

1. saioa

orrialdea 77

- a) Eskubideen txokoa
- b) Haurren alde
- c) Ebaluazioa

5.5. PRAKTIKATIK IKASI

orrialdea 78

5.5.1. 3 eta 5 urte artekoen taldeak

orrialdea 79

1. saioa

orrialdea 79

- a) Esperientziarekin konektatu

5.5.2. 6 eta 8 urte artekoen taldeak

orrialdea 80

1. saioa

orrialdea 80

- a) Dianak diseinatzen

5.5.3 9 eta 12 urte artekoen taldeak

orrialdea 81

1. saioa

orrialdea 81

- a) Sei kapela pentsatzeko

6. BALIABIDEAK, MATERIAL OSAGARRIAK ETA ERANSKINAK

orrialdea 85

Proposatutako bideoak eta jokoak

7. ESKER ONEZKO AIPAMENAK

orrialdea 93





Garapenerako lankidetzako GKE globala gara, 25 urte baino gehiagoko esperientzia duena eta haurren mesedetan eta haien eskubideen alde diharduena, hezkuntza ekitatiboa eta kalitatekoa jasotzeko eskubidearen alde, bereziki.

Neska-mutilekin zein haien ingurunearekin lan egiten dugu, haien eskubideak eta ongizatea bermatzeko moduko gizarte bidezkoago eta ekitatiboagoak sustatzeko. Haur guztiek beren eskubideez eta bizitza duin batez erabat gozatzeko mundua eraiki nahi dugu.

Gure ikuspegitik, gizarte-aldaketa da giza garapen osoranzko bidean prozesuak sortzea eta lorpenak gauzatzea xedetzat duten ekintzen multzoa, bai eta munduko pertsonen, komunitate eta herrialde guztien artean harreman orekatuago eta bidezkoago batzuetaranzko bidean ere.

Herritartasun global eta solidario baten alde lan egiten dugu. Horregatik, geure egiten dugu jarrerak, jokabideak eta bizimoduak aldatzeko eragile-rola, zeharkakotasun handiagoko ikuspegi batekin. Pertsona eta gizarte-sektore guztiengana iristeko helburua dugu.

Gure aburuz, Garapenerako Hezkuntza da elkar ulertzearen, bidezkotasunaren eta ekitatearen, parte-hartzearen, elkartasunaren eta nazioarteko lankidetzaren balioetan egiten den hezkuntza, sentsibilizazioaren, prestakuntzaren, mobilizazioaren eta eraginaren bidez, gure gizartean jarrera eta jokabide kritikoak aldatzeko. Hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta informalaren bidez dihardugu, eta hezkuntza-eragile, hezkuntza-lantalde, familia-elkarte eta irakasleekin batera, hezkuntza egiaz eraldatzaile baten alde, funtsezko eskubidetzat haurren beste eskubide batzuetarako, hezkuntza horretan haurren parte-hartzea gure oinarrietako bat dela eta gure lan-metodologian txertaturik dagoela.

Educon, gure lanaren xedea da Haurren Eskubideak benetan gauza daitezen arduratzea, eskubide horiek jasotzen dituen konbentzioaren esparruan. Munduko desberdintasunak ezagutarazten ditugu, gizartearen eta haurren parte-hartzea aurrera eramateko oinarritzko balioak sustatzen ditugu, eta espazioak eta tresnak ematen ditugu banaka zein kolektiboki hartutako konpromisoa garatzeko.

Era berean, elkartasunari dagokionez, zeharkakoa, eta ez bertikala, den ikuspegia aldeztu dugu, gizarte-sektore guztien parte-hartzea eta konpromisoa bultzatzen duena, lankidetzaz eta autonomiaz, ikuspegi, begirada, ideia eta baliabideen eskualdaketa nagusi dela. Bakearen aldeko lana, gatazken elkarriketa bidezko ebazpena, eta ingurumen-iraunkortasuna ere ezin bereizizkoak izango dira eskubide-ikuspegitik eta garapenerako hezkuntza barne-hartzaile eta globaletik.

Horregatik guztiagatik, lan kolektiborako material hau bultzatzen dugu, haurren parte-hartzea oinarritzat eta abiapuntutzat duten ikaskuntza-prozesuak sustatzeko tresna gisa, eta, halaber, ikasleek eta dinamizatzaileek Haurren Eskubideak lantzea ahalbidetzeko tresna gisa, parte-hartzea egituratze-ardatza delarik.



Gure gizarteak aurrean dituen erronka nagusietako bat haur eta gazteen hezkuntza da. Munduan desberdintasuna gora egiten ari den testuinguru batean, hezkuntza-estrategiak oinarrizko osagaia dira herritarrek beraien protagonistatzat dituzten gizarte-aldaketak sortzeko. Hezkuntza alderdi nagusia da aldaketarako, eta hezkuntza-ereduak eraldaketa horretan laguntzeko aldaketak sartu behar ditu.

Herritarren parte-hartzea funtsezkoa da mundu bidezkoago eta solidarioago baten aldeko apustuan. Haurrek, hasieratik bertatik, toki nagusi bat izan behar dute, haien ongizatea zaintzeak haien ingurunearentzako baldintza hobekaitzak. Parte-hartze esperientzia kolektiboen bidez, hain zuzen, okupa ditzakete haurrek espazioak, inguruan dutenari buruz gogoeta egin, eta eraldaketa zehatz batzuen alde jarri, beren interesen eta eskakizunen arabera.

Educon, nahi dugu haurrek beren ideiak eta iritziak askatasunez adierazi ahal izan ditzaten, eta halakoak aintzat hartu, eta erabakiak hartzeko prozesuetan sar daitezen, eragiten dieten gai guztietan.

Ahots propioa erakitzeke eta haurrak subjektu kolektibotzat jotzeko, trebetasunak eskuratu behar dira, banaka zein kolektiboki, parte-hartze eraginkorra gauzatzeko bide eman dezaten. Zehazki, lankidetzalanerako eta norberaren emozioak kudeatzeko oinarrizko trebetasun sozialez ari gara.

Parte hartzen ikasten da parte hartuz. Ez da nahikoa haurrei galderak egitea, horren ordez, egoerak sorrarazi behar dira, galdera nagusiak haiexek egiteko moduan; aldi berean, ekintza kolektiborako gaitasunak bereganatu behar dituzte, haien une ebolutiboari egokituta. Horrela, parte-hartzea bada bitartekoa eta berezko helburua, bada prozedura bat pertsonak ahalduzko, beren herritartasuna, beren parte hartzeko eskubidea, osoki erabil dezaten, eta bizitza osoan zehar garatzen da, beraz. Nork bere burua subjektu gisa erakitzeke gaitasunak ikasten laguntzen duten prozesu metodologikoei Parte-hartzerako **Hezkuntza deritzegu.**



Ez da edonolako materiala. Taxutzean zein idaztean, pertsonen arteko lankidetzazko dinamikak hautatu ditugu. Agiria osatzeko, praktikak eta kontzeptuak trukatzeko ahalegina egin behar izan da, esperientziak eta helburuak partekatu behar izan dira. Aurrean duzun egiletza kolektiboko agiri honetan, Educoco lantalde teknikoak hurrekin eginiko lanaren bidez bereganaturiko ikaskuntzak jasotzen dira, haur horiek ere lagundu dutelarik gure hezkuntza-praktikan, beren iritzi, sentipen eta ekarpenekin. Haien orientazioek hobetzen laguntzen digute, interesatzen zaizkien gaiez nahiz erakargarrien gertatzen zaizkien metodologiez jabetzen.

Eztabaida eta trukea izan dira agiria idazteko jardunbidea, autoprestakuntza-prozesu baten esparruan; prozesu horretan, hain zuzen, idazten esku hartu duten pertsonetako bakoitzaren eskutik, kontzeptuak, proiektuak eta esperientziak partekatu dira. Praktika konkretutik abiatu gara, eguneroko jardunean sartzeko proposamen bat eraikitze aldera, etengabeko elkarrizketa erabiliz, betiere. Material hau parte-hartzeko prestakuntza-prozesu baten emaitza da.

Bestalde, bilaketa-prozesua zein ikerketa-prozesua ere izan da. Hemen dituzun proposamenetako asko profesional-taldeak berak aurkitutako eta oso erabilgarritzat jotako aztarnak, teknikak eta diziplinak dira. Mihise zuri batekin hasi zen, eta hura moldatuz joan da, kolektiboki; era nahasiagoan hasieran, baina logika komun bat eratuta idazketan aurrera egin ahala. Gainera, lan bukatugabea ere bada. Beste pertsona batzuek, hainbat testuingurutan, hura erabili eta haren erabilgarritasuna egiaztatu arte, etengabeko eraikuntza-prozesuan jarraituko du.

Hona gure gonbidapena: parte-hartzerako gure hezitzaile-komunitatearekin bat egizu, zeure esperientzietatik. Zain gaituzu.



Gure lana jasotzen duzuen hezkuntza-eragileok (irakasleak, hezitzaileak, eta abar) Haurren Eskubideetan herritartasun globalaren ikuspegitik oinarrituriko proposamenak izateko beharra sentitzen duzue, bai eta alderdi horren inguruko tresna bat izateko beharra ere, gure lantaldearen aburuz funtsezkoa den zerbait islatzeko eta praktikara eramateko, alegia, haurren parte-hartzea garapenerako hezkuntzan lantzen ditugun gaietara hurbiltzeko bide gisa.

Material hau erabiltzean, hauek gomendatzen dizkizugu:

- **Zure taldea da protagonista:** zuk ezagutzen dituzu ondoen zure taldeko haurrak; hala, bada, beraiengan pentsa ezazu proposamen didaktikoak aztertzean, probatu zenbait aukera, beharrezkoa iruditzen zaizuna egokitu, eta, batez ere, haur horiei entzun, sartu proposamenei buruz ematen dituzten iritzi eta ikuspuntuak.
- **Kontuan izan zeure errealitate eta testuingurua:** lurralde eta egoera bakoitzean, berezko zirkuntantziak egoten dira; zure lana halakoak kontuan izatea da. Ez dago geure errealitate zehatzerako diseinatuta dagoen eskulibururik; hartara, zeuri dagokizu proposamenak zeure testuingurura egokitzea.
- **Ezarri zeure berezko helburuak:** material honetan, haurren eskubideei eta parte-hartzeari loturiko helburuak dituzu, baina litekeena da zeure errealitateari eta denborari loturiko xede jakin batzuk lortu behar izatea. Gehitu, ezabatu, erabili eskuliburu hau etengabeko "zirriborrotzat".





- **Kontuan izan parte-hartzerako ikaskuntzari loturiko helburuak:** oso garrantzitsuak dira; izan ere, jarduera-multzoa praktikan jarriz haurren gaitasunak hobetu nahi ditugu, parte-hartzea gauza dezaten. Zure taldeko pertsonak lankidetzaren lanerako oinarriko trebetasunetan aurrerapenak lortzea proposatzen dizugun eginkizun bat da.

- **Zaren horretan oinarriturik egokitu:** ezagutu ondo zeure burua, zintzotasunez jokatu, zeure indargunea bultzatu (antzerki-jardueretan ondo moldatzen bazara, garatu zeure gaitasuna). Hezitzaile guztiok ez ditugu ezaugarri berak, bata bestearengandik oso desberdinak gara; hortaz, baliteke proposatzen dizkizugun tekniketako batzuk bat ez etortzea zure jarduteko eta izateko moduarekin. Alda itzazu halakoak, egokitu eta bestelakotu, zuretzat erosoagoak izan daitezen aurrera eramaten dituzunean.

- **Hezkuntza-testuinguruen garrantzia:** proposamenak hezkuntza formala eta ez-formala bateratzen ditu material berean, erabilgarria izan dadin, horrela, hainbat ikaskuntza-testuingurutako hezitzaileentzat eta hainbat proiekturen esparrutan, baldin eta halakoek zerikusia badute haurren eskubideekin eta parte-hartzearekin.

- **...eta espazioen garrantzia:** leku fisikoak erabakigarriak direlako, hots, haien antolaketa, baliabide-banaketa, ikasgelan edo aire zabalean egotea. Irudikatu proposamenak toki jakin batean, eta beharrezkoa iruditzen zaizuna egokitu.

- **Aldaketara irekitako proposamena:** ez hartu dena hitzez hitz. irudikatu beste aukera batzuk, hobetu esku hartzeko zure berezko modua, sartu eragin berriak, bizi ezazu espiritu kritikoz material hau garatzeko esperientzia.

- **Ezarri talde-lanaren arauak:** joko-arauak hasi aurretik ezartzeko gomendatzen dizugu, taldearen parte-hartzearen bidez eta adostasunez. Beharbada balioko dizuten adibide batzuk:

- Gainerako taldekideak errespetatu.
- Ideiak, kulturak, hizkuntzak, eta abar ironiarik eta kritikarik gabe errespetatu.
- Beste taldekideek diotena adi entzun.
- Hitz egiteko txanda errespetatu.
- ... Eta komeni den beste edozer arau.

- **Egokitzeko aztarnak dira... Partekatuko dituzu?:** proposamen didaktikoei aldaketak edo egokitzapenak egiten badizkiozu, jardueretarako jasota ez dauden beste aukera batzuk bururatu bazaizkizu, pozik sartuko ditugu ikaskuntza kolektiboko prozesu honetan.

Gurekin harremanetan jartzeko: docencia@educo.org

Super Edu oso mutil lasaia da eta gauza berriak egitea du beti buruan. Beste herrialde batzuetako neska eta mutilekin hitz egitea oso gustuko du eta haien historia eta jolasak ezagutzea ere, horregatik ideia berriak eta originalak bururatzen zaizkio. Batzuetan, Peruko jolasak antolatzen ditu, beste batzuetan Txinakoak, Marokokoak ... munduko herrialde guztietako jolasak! Gainera, talde lana eta taldean ekintzak egitea izugarri gustuko du. Bere familiako artista da eta jende guztia animatzen du berak sortzen dituen muraletan parte hartzera.



Super Cora neska oso aktiboa da eta ikertzea asko gustatzen zaio. Beti dago zulo guztietan begiratzen, intsektu berriak bilatzeko asmoz, baina garrantzitsuena da, beti laguntza ematen diela behar duten neska eta mutilei! Batzuetan matematikan laguntzen die, besteetan nagusiei kontatzen die norbaitek zirikatzen dituenean, bere hamaiketako ere partekatzen du eta horrez gain, lagun ugari ez dituzten haurrekin jolasten da. Ingurumena asko zaintzen du eta besteek gauza bera egin dezaten saiatzen da.



Ez dakigu Super Edu eta Super Cora nortzuk diren. Haien txakurra Guauk ere ezizena du! Baina badakigu hiru horien zeregina hau dela: mutil eta neska guztiak maitatzen duten norbait izatea, eskolara joateko aukera izatea inolako ardurarik gabe, eta jolasten ondo pasatzea. Horietako bat izango zinateke zu ere?





hezkuntzari buruz

Nazio batuen Biltzarrak, 1948. urtean, Giza Eskubideen Adierazpena onartu zuen. 1989. urtean, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa onartu zen, lau printzipio gidaritan oinarriturik:

1.- Bereizkeriarik eza. Haur guztiak berdinak dira eta eskubide berak dituzte. Berdin dio non jaio diren, azala zein kolorekoa duten, zer hizkuntzatan mintzo diren, zer sinesmen erlijioso dituzten, bestelako gaitasunak dituzten, dibertsitate funtzionalen bat edo gaixotasunen bat duten.

2.- Interes gorena. Haur guztiak dira garrantzitsuak. Helduek beti kontuan izan behar dute zer den onena haurrentzat, hurrei eragiten dieten erabakiak hartzeko garaian.

3.- Bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea. Bizitza duina izateko ez ezik, ahalik eta baldintzarik onenetan bizitzeko eskubidea ere badute. Badute eskubidea etxebizitza, familia bat, zaintza mediko eta sanitarioak, eta arazorik gabe hazteko besteko elikadura izateko. Etxea utzi behar izanez gero, gobernuak behar besteko baldintzak eman behar dizkie, haien bizitzak gainerako umeen bizitzen berdinak izan daitezzen.

4.- Parte-hartzea. Parte-hartzea da haurrek duten eskubidea eragiten dieten gai guztietan beren iritzia adierazteko eta iritzioak aintzat hartuak izateko. Beren eskubideak ezagutu behar dituzte, erabili ahal izateko, eta osotasunez gozaten ari ez direnak eskatzeko.



Haurren eskubideen ikuspegia duten hezkuntzaren arloko proiektuak eta prozesuak abian jartzeko, arestian aipaturiko eskubide horiek aintzat hartzen ditugu Educon. Horrela, esaterako, bereizkeriaren ezaren ikuspegitik lan egiteko, zenbait kolektiboren sarbidea eta parte-hartzea errazteko prozesuak diseinatu dira, batez ere gutxiengoei eta gizarte-egoera ahuleko taldeei dagokienez. Haurrekiko lanak kulturartekotasun-balioak aintzat hartu behar ditu, parte hartzen duten talde jakin batzuei buruzko estereotipoak edo rolak saihesteko, hala nola, etnien, herritartasunean, erlijioan, generoan, eta abarretan oinarrituriko bereizkeria.

Haurren interes gorena sustatzeko, zuzenean eragiten dieten gaiak eztabaidatu daitezke taldean, helduek gauzatutako ekintzek haiengan dituzten ondorioak aztertzeko. Batzuetan, interes-gatazkak gertatzen dira heldu batek haur batentzat onena zer den erabaki, eta haur hori ados ez dagoenean. Interesgarria da, beraz, taldeetan eztabaidak sartzea eskubideei, erantzukizunei, beharriaz, eta abarri lotutako gaien inguruan.

Garatzeko eta bizirauteko printzipioaren inguruko gaietan, tokiko testuinguru bakoitza oso kontuan izan behar da. Taldeek aztertu, eztabaidatu ahaliko dute bizirauteko eta garatzeko beharriaz zein diren, eta zer baliabide eta aukera dituzten halakoak asebetetzeko, beren kulturara egokituriko alternatibak bilatuz. Ekintzen plangintzan, lankidetzaz bilatzeko aukera izan behar da kontuan, abandonuaren, indarkeriaren, abusuaren edo esplotazioaren mota batzuk zein besteak saihesten eta tratatzen jadanik lan egiten ari diren erakundeekin, hain zuzen.

Oro har, interesgarria da ikuspegi sozioafektiboak zein hezkuntza emozionaleko ikuspegiak dituzten metodologiak erabiltzea, bai haurrekin, bai familiarekin eta haurrak zaintzen dituzten hezitzaileekin, haurren biziraupena eta garapena arriskuan jartzen dituzten egoerak salatzen bidez, hainbat arlotan:

osasun-arloan, hezkuntzan, aisialdian, familia-bizitzan, hiriko bizitzan, eta abarretan.



Parte hartzeko eskubidea erabiltzeko, hurrek aukerako espazioak behar dituzte, bai eta eskubidea gauzatzeko behar diren gaitasunak ere. Lehen ere esan dugunez, "parte hartzen ikasten da parte hartuz". Parte hartzen ikastea kiribil-prozesutzat har daiteke; hala, hurrek subjektu aktibo gisa eraikitzen dute beren burua, bizi diren errealitate baten eraldaketan engaiatuta. Ez dira une jakin batzuetako jarduerak, etapak dituzten prozesuak baizik, eta, halakoetan, gaitasunak eta ezagutzak norberegantzen dira, errealitatea aldatzen edo eraldatzen era autonomoan esku hartzeko aukera izateko.

Prozesu horretarako, honako hauek eskatzen dituen bide bati lotu behar zaio:

- **Prozesuan sartzeko era aztertzea**, ibilbidea hasteko era. Hasteko, garrantzitsua da nor bere burua ezagutzea, motibatzea, kezka baten edo behar baten bat partekatzea, eta banako gisa nahiz kolektibo gisa eragiten duten gaiei buruzko informazioa izatea.
- **Komunikatzeko erak ezagutzea**, ideiak partekatzea eta erabakiak hartzea. Entzuten, hitz egiten, ideiak eta sentimenduak adierazten ikasi behar da, ados ez egoten eta bat etortzen.
- **Ingurunea nola eraldatu jakitea**. Garrantzitsua da ekintza baten plangintza egitea, konpromisoak eta erantzukizunak hartzea, erabakitako jarduerak gauzatzea, eta haiek ebaluatzea.
- **Gertatutakoaz gogoeta egitea**, ikaskuntzez kontziente izatea eta bide berriak planifikatzea. Zenbaitetan, kontuan izan behar da porrotak berebiziko aukerak direla ikasteko eta berritzeko, sormenezko alternatibak bilatzeko.





Parte-hartzearen ikuspegia duen hezkuntza-praktikan kontuan izan beharreko beste alderdi batzuk:

- Haurren parte-hartzearekiko “beldurrak” gainditzea. Erabakiak hartu behar badira, proiektuaren fase guztietan haurren iritzi eta ikuspegiakiko berdintasuna aintzat hartzeko moduan egon beharra dago. Esaterako, jardueren programazioak behar besteko malgutasuna izan beharko luke helburuak lan-hipotesizat hartzeko, eta hurrengo lan-faseetan ideia berriak sartzera irekita egon beharko lukete.
- Parte-hartzea sustatzen duten metodologiek bat etorri behar dute haurren prozesu ebolutiboarekin eta gaitasunekin.
- Haurrek informazio eskuragarria eta adierazgarria izan behar dute, euskarri materialen, jarduera eta dinamika presentzialen, liburuxken, kartelen, Interneten (bloga, webgunea), eta abarren bidez, beraien adin eta ezaugarrietara egokituta.
- Interesgarria da berariazko ekintzak prestatzea haurren iritziak lortzeko hezkuntza-prozesuaren fase guztietan. Esaterako, komunikazio-kanalak sortzea: posta elektronikoko helbidea, webgunea, postontzi eta txoko bereziak, behatoki birtualak, haurrek halakoetan beren iritziak jakinarazi eta beren lanak, ideiak eta ekintzak partekatu ahal izateko.
- Jarduerak erakargarriak izango dira, eta haurrek parte har dezaten erraztuko dute, berariazko neurri batzuen bidez, proiektuari dagokion testuinguruaren ezaugarrien arabera; esaterako, lankidetzeta-laneko metodologiak baliatuz, batzarrak, eztabaida-taldeak, batzordeak edo foroak antolatuz.
- Taldeko parte-hartzearen helburuak eta haurren parte-hartze soziala bereizi behar dira. Esaterako, bigarren arlo horretan, administrazioak, ikastetxeak eta erakundeak konbentzitzeko ekintzak sar daitezke, haurren iritziak aintzat har ditzaten eragiten dieten gaietan, horretarako, txosten teknikoak, lanak, haurren gutunak, eta abar erabilia.
- Ez ahaztu garapenerako hezkuntzaren eta herritartasun globalaren ikuspegia. Haurren parte-hartzea herri-tartasun aktiboko praktika bat da, tokikotik globalerantz, aldaketa-eragile erreal eta garrantzitsuak diren aldetik.


Metodologia-proposamen bat: Parte-hartzezko Ekintza Ikerketa (PEI).

Eraldaketarako ikaskuntzako eta parte-hartze prozesuan planteatzen dugun hipotesi-izaera dela-eta, [Parte-hartzezko Ekintza Ikerketan](#) oinarrituriko metodologia bat aurrera eramateko proposatzen dugu.

PEIrekin, gizarte-hezkuntzako jarduna berriz planteatzen da, ingurune konplexu bat ulertuz, non hezteko eginkizuna gauzatzen den. Hezitzaile gisa, abian jarritako prozesua diagnostikatzeko eta haren gainean gogoeta egiteko gai izan beharko dugu, parte-hartzezko era batean, beren errealitatea bizi duten haurren taldearekin batera; haiek, hain zuzen, errealitate horretan esku hartzeko gai dira, balioak eta jarrerak eraldatuz.

PEI bat dator gure proposamen pedagogikoarekin, badituelako **ikerketarekin** lotutako alderdiak (abiapuntua, taldearen beharrianak eta haiek betetzeko moduak diagnostikatzea, prozesuei behatzea, prozesuon gainean gogoeta egitea, eta aurrera eramanoiko ekintzak ebaluatzea) zein ekintzarekin lotutakoak (taldea sortzea, proposamen pedagogiko bat eramanez parte hartzen ikastea, gure ekintza diseinatzea, ekintza gauzatzea) parte-hartzezko era batean (tartean diren haurrek eta helduek ekintza ebaluatzen dute eta ekintzan laguntzen dute). Taldeko ekintza-ikerketak zikloak abian jartzeko gonbit gisa ulertzen da; ziklo horietan, hain zuzen, prozesu baten bukaerak hurrengorako atea zabaltzen du. Horrek dakar pertsonak objektuak ez izatea (adi egoten diren ikasleak), subjektu aktiboak baizik (parte hartzen duten ikasleak), eta, horretarako, honako hauek behar dira:

- **Taldearen ezaugarrietara egokitzen diren teknika batzuk**, aldi berean ezagutzea eta eraldatzea ahalbidetzeko moduko tresna batzuk (sormen-dinamikak, eztabaida- eta debate-taldeak, gorputz-adierazpena, etab.).
- **Zientzia- eta herri-ezagutzak**, jakintzen trukea eta erkaketa sustatuta.
- **Banaka lan egiteko ikuspegitik lan kolektiborantz aldatzea**, pertsonen arteko harremanak sortuz eta sare sozialak lotuz. Errealitate bat eraldatzeko parte hartu nahi badugu, errealitate hori osatzen duten subjektu guztiak izan behar ditugu kontuan, ahaztu gabe ez datzala pertsonen baturan, baizik eta pertsona horien artean gertatzen diren harremanetan.
- **Etengabeko ikaskuntzako prozesu gisa planteatzen da**, etengabeko ebaluazio gisa, ikerketaren, ekintza-aren, gogoetaren eta parte-hartzearen bidez, aztertzen ari den gaia edozein dela ere. Prozesuaren bukaeran, lorturiko emaitza guztiak erlaziona daitezke prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren datuak biltzeko tresnetan lortu diren emaitza eta balorazio partzialen bidez.



Jarduera bakoitzean, prozesuan zehar, lan-fitxetan lorturiko emaitzei buruzko gogoeta egitera gonbit egiten diguten zenbait gai aurkezten dira, eta halakoak aintzat har ditzakegu hurrengo saiora edo proiektu-fasera igaro baino lehen. Gomendatzen dugu halakoak datuen erregistrarako tresna batzuetan jaso daitezela, adibidez:

• Landa-koaderno batean:


koaderno horretan planteatutako gaiak era objektiboan idatziko dira egunkari gisa. Edukiekin zerikusia duten gaiak ez ezik, sentimendu, sentipen edo alderdi subjektiboak lotutakoak ere sartzeko gomendatzen da.

• Sentimendu-kutxa batzuetan:

txikientzat, kutxak (adibidez, kartoizko kutxak edo gaztatxo-kutxak) edo aurpegi alai eta tristeak dituzten gutun-azalak presta daitezke, halakoetan oharrak sartuz joan daitezen, saio bakoitzean gehiago edo gutxiago gustatu zaizkien gauzak idatzirik.



Jarrian, haurren eskubideak eta parte-hartzea lantzeko zenbait proposamen didaktiko deskribatuko ditugu, hainbat adin eta testuingurura egokituriko bide bat osatzen dutenak. Prozesua, oro har, oinarritzko pauso batzuen inguruan antolatuta dago:



1. TALDEA SORTU:

autoezagutzaren eta elkar ezagutzaren inguruan lan egiten da, bai eta testuinguruaren azterketan ere.

2. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

ekintza kolektiboa gertatzeko motibazio, prestakuntza eta antolaketako elementuak tratatzen dira.

3. PROIEKTUA DEFINITU:

erabakiak hartzeko eta parte-hartzea planifikatzeko mekanismoak sartzen dira hemen.

4. EKINTZARA PASATU:

jarduerak antolatu eta bultzatzeko tresnak ematen dira.

5. PRAKTIKATIK IKASI:

egindako ibilbidearen kontzientzia hartzen da.

Pauso hauetako bakoitzak adin-talde hauentzako proposamenak dauzka:

- 3-5 urte.
- 6-8 urte.
- 9-12 urte.

Zenbaitetan, jarduera bera adin baterako baino gehiagorako erabil dezakegu, beharrezko egokitzapenak eginik.

Jarduera-proposamenak, oro har, saio bidez antolatuta daude, bakoitzak 50 minutuko iraupena duela; horrela, hezkuntza formaleko zein ez-formaleko espazioetan erabiltzea errazten da. Hasierako hiru pausok (taldea sortu, parte-hartzerako baldintzak eta proiektu bat definitu) bina lansaioko dituzte, baina taldeen ezauzarrietara egokitu daitezke.

Jarduera bakoitzean izarrak jarri ditugu, taldearen parte-hartze mailak adierazteko

- (★) maila txikienekoa da, eta
- (★★★★★) parte-hartze maila handienari dagokio.

Badugu jarduera antolatzaile eta iraunkor bat, prozesuak dirauen bitartean, adin guztientzat:

“Eskubideen txokoa”. Hura izango da, hain zuzen, taldea edo ikasleak saio bakoitzean sartzeko era.





Haurren eskubideen txokoa

Sarrera

Jarduera-txokoak ikasgela edo prestakuntza-espazioa antolatzeko era bat dira, ikasleei lan egiteko, arauak ezarri eta betetzeko eta beren autonomia garatzeko oinarrizko ohiturak garatzea ahalbidetzen diena, haur bakoitzaren desberdintasun, interes eta ikaste-erritmoei erantzunda, aldi berean. Txokoek sormen eta malgutasun handiagoko metodologia bat dakarte, eta, haietan, haurrek behatzen, esploratzen, manipulatu, esperimentatzen, aurkitzen, sortzen... ikasten dute, ondo pasatzen duten bitartean.

Haurren eskubideen txokoa, haurren parte-hartze aktiboa lortu nahi dugu, beren eskubideen ezagutzen eraikuntzan eta eskubide horiek betetzearen behaketan.

Adina: 3-12 urte

Iraupena: 10 minutu prozesu guztiko saio bakoitzaren hasieran, adin guztientzat.

Parte-hartze maila: ★★★★★

Helburuak

- Haurren Eskubideak ezagutzea, ikerketaren eta behaketaren bidez.
- Autonomia pertsonal eta kolektiboa sustatzea, bai eta parte-hartze espazioen sorrera ere.

Materialak

- Haurren eskubideen txokoa sortzeko gunea ikasgelan.
- Orriak, boligrafoak.
- Paper jarraitua.
- Errotuladoreak, kartoi meheak.
- Artaziak, kola.
- Beste material batzuk, jardueraren arabera.

Garapena

Ikasgelan edo dena delako gelan, haurren eskubideen txokoa sortuko dugu, eta, bertan, proiektu guztian zehar, taldea espazioa eratuz joango da. Espazio horretan, Haurren Eskubideei buruzko materiala eta informazioa edukitzeaz gain, behatokia izango da, ikasgelan edo laneko espazioan bertan eskubideak betetzen diren ala ez zaintzeko. Parte-hartzaileek, eta, beraz, haurrek beraiek, beren gain hartuko dute eskubideak errespetatzeko nahiz betearazteko konpromisoa. Hori hala gerta dadin, funtsezkoa da eskubideak zer diren eta zein diren jakitea, eta munduan haur guztientzat eskubide berberak diren. Dinamika bat 3-8 urte artekoentzat proposatzen dugu, eta beste bat, 9-12 urte artekoentzat, aurrerago azalduko duguna.

Bestalde, haur guztien eskubideak islatu nahi ditugu, oro har, ez bakarrik proiektuan parte hartzen hari direnenak; horretarako, garapen-bidean dagoen herrialde bati eskainiko diogu txokoa, El Salvadorri. Horrela, parte hartzen duten pertsonen eta/edo ikasleek ikusiko dute nola errespetatzen edo urratzen diren salvadortar haurren eskubideak, eskubideen ikuspegi global bat emanda. Educo gure webgunean, badaude haurren eskubideei buruzko materiala eta informazioa, bideoak eta artikulak, Eskubideen Txokorako erabiltzen den tartean aztertze modukoak:

<http://www.educo.org/QUE-HACEMOS/Donde-actuamos/El-Salvador>

Lehen saioa

Eskubideekiko errespetua islatzen duten arau batzuk sortzea. Arau bakoitza era positiboan formulatuko da, adibidez, "zuk oiher egiten baduzu, gainerakoek ozenago oiher egingo dute". Arauak paper jarraitu batean idatzi, eta txokoa jarriko dugu. Gelako ikaskide edo taldekide guztiek adostu behar dituzte arau horiek. Era berean, arauak ez betetzearen ondorioak zehaztu behar ditugu. Saioz saio, pertsona bana arduratuko da arauak betetzen diren behatzeaz.



Bigarren saioa

Ikasgela edo dena delako gela 4-5 laguneko taldeetan banatuko dugu, eta horiek izango dira eskubideen behatzaileak. Taldeok finkoak izango dira proiektu guztian, eta saio bakoitzean talde horietako bat arduratuko da eskubideen behaketa egiteaz gelan.

Hona hemen taldearen ardura eta betebeharren adibide batzuk:

1. Gelan, erakundean edo ikastetxean eskubideak errespetatzen diren behatzea, saio batetik besterako tartean. Adibidez:

- Hezkuntzarako eskubidea: ea edukiak ulertzen ari diren, egiten dituzten jarduerak gustatzen zaizkien, instalazioak ondo dauden, ordutegiak betetzen diren...
- Jolasteko eskubidea: ea haurrek beren jokoak zaintzen dituzten, ea uste duten joko gehiagoren bat edo jarduera berriren bat behar dutela, ikastetxeko/erakundeko jarduerak gustatzen zaizkien...
- Babeserako eskubidea: ea arazorik dagoen, gatazkarik, hala nola, borrokak, irainak, eta abar. Arazo horiek nola konpontzen diren. Ea irakasle edo hezitzaileek beren rola betetzen duten, figura babesleak diren aldetik. Ea ikastetxeak/erakundeak babesari buruzko araudiak betetzen dituen...
- Bereizkeriarik ez jasateko eskubidea: ea ikasgelan neskek mutilek bezala parte hartzen duten, ikaskideren bat bereizkeriaz tratatzen den ala ez...
- Familiarako eskubidea: familiek ikastetxeko jardueretan parte hartzea...
- Osasun eta ongizaterako eskubidea: jantokirik egonez gero, ea dieta osasungarri bat betetzen den behatzea, ea egiten dituzten jarduerak ohitura osasungarriak garatzea sustatzen duten...
- Parte hartzeko eskubidea: ea ikasleen edo taldearen gelan, espazioan eta ikastetxean parte-hartzea sustatzen den..

2. Ikastetxeko liburutegian eskubideei buruzko liburuak edo komikiak bilatzea, eta halakoak iragartzea edo txokoan jartzea. Talde bakoitzak berri egingo ditu halakoak.

3. Egunkarietan edo Interneten, Haurren Eskubideekin zerikusia duten edonolako berriak biltzea. 3 eta 6 urte arteko umeei dagokienez, argazkiak edo marrazkiak bil ditzakete, edo, areago, etxean egin ditzakete familiekin, taldeari aurkezteko.

4. Eskubideak El Salvadorren.

5. Taldeak informazio hori guztia txosten batean jasoko du, eta, gero, gelako gainerakoei azalduko die saio bakoitzaren hasieran.

Talde/pertsona behatzaileen txostena.

Bildutako informazio guztiarekin, talde arduradunak txosten bat osatu, eta aurkezpen bat egingo da saio bakoitzean. Gelaren aurreko aurkezpena egitean, pertsona bakoitzak atal bat azalduko du, monologoa saihestuta horrela. Era berean, garrantzitsua da jarduera horretan taldea nola sentitu den aditzera ematea.



Haurren eskubideak ezagutzeko jarduera batzuk

A) Gure maskotaren eskubideak

Adina: 3-8 urte.

Iraupena: 30 minutu.

Parte-hartze maila: ★

Helburuak:

- Haurren Eskubideak zer diren eta era argian zein identifika daitezkeen jakitea.
- Eskubideak haurren eguneroko bizitzekin lotzea.

Materiala:

- Arbela edo errotafolioa.
- Errotuladoreak.

Deskribapen laburra: ikasleek edo taldeko hurrek maskota baten beharrianak irudikatuko dituzte, eta hori haur gisa dituzten beharrianetara hedatuko dute, bizitzeko eskubidera, babeserako eskubidera, eta hurrek beharrian horiek guztiak ikasgelan, ikastetxean, auzoan, hirian eta munduan badituzten aztertuko dute.

Jardueraren garapena:

Ikasleei edo taldeko hurrei eskatuko diegu maskota bat dutela irudikatzeko, zaindu egin behar dutela eta izena jarri behar diotela. Pentsatu behar dute maskotak zoriontsu, osasunez eta seguru bizitzeko behar duen guztian. Arbelaren alde batean maskotaren izena idatziko dugu, eta taldearen ustez behar duen guztia jasoko dugu hor: janaria, ura, zainketak, ohe bat, maitasuna, konpainia...



Galdera hau egin dezakegu:

nork du ardura maskotak eskubide eta beharrizan horiek guztiak beteta izan ditzan? Taldearen erantzunak idatziko ditugu; adinaren arabera, maskotaren arduradunak beraiek direla erantzungo dute. Beharrizanak egiaztatu eta gero: etxea, janaria, ura... hau galdetuko dugu:

Gure maskotak, egiaz behar ditu gauza horiek guztiak bizirauteko? Orduan, maskotak badu eskubiderik gauza horietaz guztiez gozatzeko? Nork du ardura maskotak beharrizan horiek beteta izan ditzan?

Arbelean "Haurra" hitza idatzi, eta galdetuko dugu: Zer behar du haur batek bizitza zoriontsu, seguru eta osasuntsua izateko? Zerrenda bat osatuko dugu erantzun guztiekin; horietako batzuk hauek izango dira: etxea, familia, adiskideak, ura, jostailuak, hezkuntza, maitasuna, zainketak...

Galdetuko dugu: nork du ardura beharrizan horiek betetzeko? Honelakoak izango dira erantzunak: familiak, gurasoek, helduek...

Egin daitezkeen beste galdera batzuk:

Zer behar dute hurrek babesa sentitzeko, garatzeko eta gizartean parte hartzeko?

Hurrek halako gauzak behar badituzte, horrek esan nahi du gauza horietarako eskubidea badutela? Nork du edo dute Haurren Eskubideak ziurtatzeko ardura?

Taldeko edo gelako haur guztiek badituzte beharrizan horiek, eta ikastetxeko, auzoko, hiriko eta munduko hurrek?

Hemendik aurrera, 6 urtetik 8 urtera bitarteko haurrentzat, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa aurkez dezakegu (HEKren haurrentzako bertsioa), eta mundu guztiko haur guztien eskubideak biltzen dituen agiria zertan datzan azalduko dugu.

Haurrak 3 eta 6 urte artekoak direnean, Haurren Eskubideei buruzko bideoren edo kantaren bat ikus daiteke, esaten baterako:

<https://www.youtube.com/watch?v=DoC7fmcmFdM>

Ebaluazioa:

Ikasleei edo taldeko hurrei eskatuko diegu arbeleko zerrenda eta HEKn jasotako eskubideak erkatzeko; xedea da eskubideak idatzi ditugula nabarmentzea eta "beren bizitzan adituak" diren pertsonak direla kontura daitezen, beren beharrizanak zein diren badakitela, bai eta beharrizan horietaz nor arduratu behar den ere, eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak haiek zaintzen eta babesten duen agiri bat dela.

Ikasleak edo taldeko haurrak nagusiagoak direnean (6-8 urte), erkaketa zabalago bat egin dezakegu, idatzi ez ditugunak, HEKn egon arren, adierazita, konbentzio horretan jasotzen ez diren beharrizanak argitzeaz gain.

Guztien artean, eskubidearen definizio bat idatziko dugu Din A3 tamainako orri batean, eta hura ikasgelan utziko dugu, maskotaren jarduerarekin batera. Hona hemen definizio posible bat:

"Eskubidea da beste pertsonak guri errespetatu behar digutena eta guk beste pertsonari errespetatu behar dieguna"

Denok ditugu eskubideak!!!





B) Ontzi batean kontinente berri baterantz.

Adina: 9-12 urte.

Parte-hartze maila: ☆

Helburuak:

- Taldeari, oro har, Giza Eskubideen ezagutzaren hastapenak ematea.
- Eskubideak eta nahiak bereizteko gai izatea.

Iraupena: 30/40 minutu.

Materiala:

- "Beharrianen eta nahien kartak" dauzkan gutun-azal bat (http://www.eycb.coe.int/compasito/chapter_4/4_27.asp)

Jardueraren garapena:

Ikasleak edo taldeko haurrak talde txikietan bilduko ditugu. Jarraibide hauek emango dizkiegu:

- Pentsa dezagun ontzi batean goazela, eta kontinente berri baterantz abiatzen garela, non ez dagoen ezer ere.
- Talde bakoitzari beharrianak eta nahiak dauzkan gutun-azal bat emango diogu (88. or.), eta azalduko zaio horixe izango dela haien ekipajea, kontinente berrian bizi ahal izateko. Talde bakoitzak bere gutun-azala ireki, eta ondo aztertuko ditu bere kartak.

Item batzuk anbiguoak dira berariaz, eztabaida pizteko funtsezkoa denaren definizioari buruz. Bestela, taldearen ezaugarrien arabera zein erabilgarri dagoen denboraren arabera, karta zuri batzuk bana daitezke, ekipajea gehitzeko edo zer ekipaje eraman erabakitzeo aukera izan dezaten.

Kontakizunari ekin, eta azalduko da hasieran bidaia oso lasaia dela. Halako batean, ekaitza lehertu, eta ontzia hondoratzen ari da. Ekipajearen zati bat bota behar dute, hau da, kartak, ontzia salbatu ahal izateko. Talde bakoitzak, adostasunez, zein karta botako dituen erabakiko du (3 karta). Azalduko dugu botatako kartak ezingo direla berreskuratu.

Norabidean jarriko gara berriz. Bidaia aurrera egiten du, eta, bat-batean, urakana datorrela abisatzen digute. Hori dela eta, beste hiru karta bota beharko dituzte karelaren gainetik. Gogoan izan: ez bota zure ustez garrantzitsuenak diren kartak. Urakana igaro, eta bidaia lasai-lasai doa. Minutu batzuk geroago, olatu erraldoi bat ontzi gainera erortzen da, eta kalte batzuk eragiten ditu. Berriz ere pisua arindu beharra dago: beste hiru karta kenduko ditugu. Azkenik, lehorra ikusten da urrutian. Lehorrera jaisten gara.

Badugu bizirauteko behar dugun guztiak? Eta garatzeko?

Ebaluazioa.

Gogoeta egiteko eta jarduera ebaluatzeko unea iritsi da:

1. Honelako galderen bidez egingo dugu jarduerari buruzko gogoeta:
 - Zer gustatu zaizu jardueratik?
 - Nola hartu ziren erabakiak? Erabakietako batzuk zailak izan ziren? Zein?
 - Mundu guztiak ditu beharrian berberak? Badira desberdinak diren batzuk?
 - Zer iritzi duzu azken aukeraketei buruz? Ondo biziraun zenezake eta gara zintezke kontinente berrian?
 - Harritu zaitu bukaerak?
 - Jarduera beste behin egingo bazenu, bestelako gauzaren bat baztertuko zenuke?
2. Nabarmenduko dugu giza eskubideak pertsonen beharrianetan oinarritzen direla: pertsona bakoitzak bizirauteko, garatzeko eta duintasunez bizitzeko behar dituen gauzak. Eskubideak unibertsalak dira eta elkarri lotuta daude.
3. Eskubideak aurkeztu, eta jokoan atera denarekiko erlazioak ezarriko dira.



Lan-giro ona sortu ahal izateko, eta edozein prozesuk funtzionatu ahal izateko, talde kohesionatu bat eduki behar da, non taldekide bakoitzak beharrezkoak iruditzen zaizkion ekarpenak askatasun osoz egin ditzakeen. Hori lortzeko, pertsonen zein taldearen zenbait alderdi landu behar dira pixkanaka, hala nola, pertsonen oinarritzko ezaugarrien aurkezpena, norberaren eta taldeko gainerakoen ezagutza, norberarenganako zein gainerakoenganako estimua eta konfiantza, eta, azkenik, lankidetzeta.

Hala, lehen fase honetan, era ludikoan landuko dugu “taldea sortzeko” prozesua, taldean agertzen diren erronka eta gatazkei –halakorik agertuz gero– era egokian aurre egin ahal izateko behar diren tresnez hornitzeko.

Ez ahaztu Landa-koaderno edo Sentimendu-kutxa adin batekoen eta bestekoen saio bakoitzean.





1. saioa.

a) Eskubideen txokoa. Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) Sute-itzaltzailea.

Iraupena: 15-20 minutu

Parte-hartze maila: ★★

Helburuak:

- Onarpena indartzea.
- Kontaktu fisiko positiboa estimulatzea.

Materialak eta beharrizanak:

Oztoporik gabeko espazioa.

Garapena:

Taldearen erdiak "suteak" izango dira, eta beste erdiak "sute-itzaltzaileak". "Suteak" jolas-eremuan zehar sakabanatuko dira, eta besoak goratzen eta gorputza mugitzen hasiko dira, sugarren mugimendua eta hotsa imitatuz. "Sute-itzaltzaileek", ahal dela talde txikietan, "suteak" bilatuko dituzte, haiek itzaltzeko afektu-agerpenen eta fereken bidez, sugarrak itzaltzeko horrela. Itzali eta gero, "sute-itzaltzaileen" taldeak beste sute baten bila jarraituko du. "Sutea" berriz piztu daiteke, afektu handiagoa behar duela uste badu, eta berriz mugitzen has daiteke (gehienez hiru aldiz). "Sute" guztiak itzali eta gero, rolak trukatu dira.

Ebaluazioa:

Galdera batzuk egingo ditugu, erantzuteko eta jardueraren balorazioa egiteko.

- Jokoa gustatu zaie?
- Zer sentitzen da afektua agertzen dizutenean?
- Gustatzen zaizu afektua agertzea besteei?

Kontuan izateko:

- Komeni da azaltzea suteak ez direla azkar itzaltzen normalean, bai "suteen" taldeari, bai "sute-itzaltzaileen" taldeari; afektu-agerpenak astiro-astiro eman behar dira... "Sute-itzaltzaileei" gogorarazi behar zaie suteak arriskutsuak izaten direla, eta komeni dela zuhur jokatzera, sua poliki-poliki itzaliz.
- Kontuz ibili behar da, "sutearena" egiten duten haur mugituenek besteak kaltetzeko moduko mugimendu zakarrak ez egiteko.
- Dinamizatzaileak lagundu egin beharko die kontaktu fisikoa ondo eramaten ez duten hurrei (ferekak ilean egingo zaizkie, gorputzean baino hobeto, edo kili-kili egingo zaie, kili-kiliei ez baitaie uko egiten normalean).

c) Txaloak zuzentzen.

Iraupena: 15-20 minutu

Parte-hartze maila: ★★

Helburuak:

Autoestimua, norberarenganako konfiantza, eta taldearen atzeraelikadura positiboa bultzatzea. Distentsioa eta desinhibizioa.



Materialak eta beharrianak:

Barnealdeko espazioa.

Garapena:

Talde guztia biribilean. Norbait erdigunean jarri, eta txalo-zaparrada jasotzen du.

Erdigunekoa txaloen "zuzendaria" izango da une batzuez: tonua igoarazi eta jaitsarazi ahalko du, gainerakoei lurra oinekin jotzeko eskatu ahalko die, edo oihu eragin ahalko die, pozez jauzi eragin, eta abar. Taldeak baita eskuaren keinurik txikienarekin ere egingo du txalo, eta erdiguneko pertsonari adi-adi egongo dira. Azken horrek diskurtso baten itxura egin ahalko du, edo kanta bat kantatu, txaloak etengabe tartekatzen direla, eta abar.

d) Ebaluazioa:

Galdera batzuk egingo ditugu, erantzuteko eta jardueraren balorazioa egiteko.

- Gustatu zaizu txalo-zuzendaria izatea?
- Nola sentitzen da ospea, taldearen onarpena?
- Gustatzen zaio taldea zuzentzea?
- Gustatzen zaizu taldekideei txalo egitea?

Kontuan izateko:

Txaloaren jokoa hainbat unetan egitea komeni da, aldi berean haur gutxi dagoela, energia kentzeko edo oraindik erdigunean jartzea falta zaienei nolabaiteko espektatiba sortzeko.

2. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) **Lankidetzeta-jokoak I. Denok dugu zer batu.**

Iraupena: 15-20 minutu.

Parte-hartze maila: ★

Helburuak:

- Norberaren trebetasunez jabetzea.
- Taldekoen arteko elkarrizketa sustatzea.

Materialak:

- Papelografoa, kartoi meheak edo orriak.
- Margoak, errotuladoreak.

Garapena:

Ikasgelako edo taldeko guztiak biribilean edo bikoteka eseriko dira; haietako batek beste baten eskuaren silueta marraztuko du aukeraturiko paper-euskarrian, eta bien artean zer kolorez margotu adostuko dute. Gero, elkarri galdetuko diote zer dakiten egiten edo zertan moldatzen diren ondo. Trebetasun horiek dagoz-kion pertsonaren eskuaren marrazkiarekin batera, haren gainean, jarriko dira idatziz. Taldeko bertako norbait edo pertsona bideratzailea ardura daiteke idazteaz. Emaidza paretetan esekiko da, gogorarazteko denok badugula ondo moldatzen garen gauza bat, eta taldeko multzoaren gaitasunak batuz, gauza asko egin daitezkeela.



Pertsona bideratzailea galderak eginez joan daiteke, apur bat sakontzen laguntzarren eta erantzun guztiak “ondo jokatzen dut futbolean”, “matematika gustatzen zaio”... eta antzekoak ez izatearren.

Kontuan izateko: abagunea balia daiteke gatazka txikiak dauzkaten haurrak bikote berean jartzeko, edo oso hurbilekoak ez direnak, elkarrekin hitz egin dezaten, akordioak lor ditzaten, eta bestearengan bertuteak ikus ditzaten.

Ebaluazioa:

Hurrengo jarduerarekin batera egingo da ebaluazioa.

c) Lankidetzeta-jokoak II. Puxika-trena.

Iraupena: 15-20 minutu.

Parte-hartze maila: ★

Helburuak:

Parte-hartzaileak kontzientziaztea beharrezkoa dela denon parte-hartzea, helburu komun bat lortuko bada.

Materialak:

- Puxika ekologikoak: parte-hartzaile bezainbeste puxika.
- Errotuladoreak.

Garapena:

Tren bat osatzen da parte-hartzaile guztiekin, eta puxika puztu bat jartzen da baten sabelaren eta bestearen bizkarraren artean, horrela eutsita, eskuekin ukitu gabe. Horrela, trenak aurrera, atzera egin behar du, jauzi egin, saiheska ibili, eta abar, puxikarik erori gabe. Hasteko, zenbait tren egin daitezke, bakoitza 4 edo 5 lagunekoa, eta gero elkartu egingo dira, ulertuz doazen heinean; azkenean, tren bakarra osatuko da, talde guztia elkartuta.

d) Ebaluazioa: (iraupena: 10 minutu)

Haurrak biribilean eseri direla, galdera hauek egingo ditugu:

- Gustatu zaizkizu jokoak?
- Zer gertatzen zen mugimendu bera aldi berean egiten ez zenutenean?
- Gaizki sentitu zara noiz edo noiz?
- Zer gustatzen zaizu gehiago, bakarrik jolastea ala beste haur batzuekin jolastea?

Taldeko guztiek erantzun dezaten saiatuko gara. Gero, trenaren jokoko puxika puztua emango zaie, aurpegi irribarretsua ala aurpegi tristea marrazteko, saioa pozik bukatu duten ala ez.

Gomendioa:

Egin jarduera toki itxi batean, altzaririk gabe, hala nola, gimnasio batean, haizeak puxikak ez eramateko.



1. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) **Inklusioko eta identitateko dinamika.**

Iraupena: 50 minutu.

Parte-hartze maila: ★★

Helburuak:

- Identitate- zein inklusio-beharra dugula onartzea.
- Maila pertsonalean ditugun dinamika propioak eta beraien ondoriozko sentimenduak identifikatzea.

Materialak:

- Hainbat forma eta koloretako gomets edo eranskailuak.

Garapena:

Parte-hartzaileei begiak ixteko eta erabat isilik egoteko eskatuko zaie. Dinamizataileak kopetan puntu bat daramaten etiketak (gometsak) jarriko ditu, hainbat kolore eta formatakoak (esaterako, 5 gorri, 7 urdin, 6 berde, 1 gris, 1 beltz... edo izar hori bat, 2 lauki gorri, 6 lauki berde, etab.). Taldeak osatzeko eskatuko zaie hitzik gabe (ez da ezer gehiagorik zehaztuko). Dinamika bukatuko da inor bere tokitik mugitzen ez denean eta guztiak egokitu zaien taldeko kide sentitzen direnean.

Taldeak eratuko dira ezaugarri nabarmenetako bat bakarrik kontuan hartuz (kolorea), ohituraren kausaz, homogeneizatzeko joerari jarraituz (homogeneizazioak bazterketa dakar), baina proba berriz egin dezakegu, beste ezaugarri bat kontuan har dezatela eskaturik.

Baztertutako pertsonak ere bihur daitezke "arazo" taldearentzat; kontsigna zen taldeak osa zitezela, eta antzekotasunez posible ziren taldekatze-era batzuk gertatu dira, gehiengoaren arauarekin bat egitea bilatuta, edo bazterketa gertatu da, desberdintasunak bakartuta utzita. Dinamika honetan oinarritzko bi beharri-zan agertu dira: identitate-beharra eta kide izateko beharra (hau da, talde jakin bateko kide sentitzeko beharra). Biak atxiki ahal izatea gizarte inklusibo baten ideala da, haietako bati uko egin behar izan gabe.

c) Ebaluazioa:

Galdera batzuk egingo ditugu, erantzuteko eta jardueraren balorazioa egiteko.

- Nola sentitu gara?
- Zer sentitu zuen talde bateko kidea ez zenak?
- Zer sentitu zuen talde bat aurkitu zuenak?

Kontuan izateko:

- Ziurtatu behar da bazterketa-egoera pasatu dutenek berriz ere pasa ez dezaten, eta jokabide baztertzailak izan ditzaketenek edo taldean lidergo-rolen bat dutenek aukera izan dezaten, jokoaren barruan, beste toki batean sentitzeko.
- Azpimarratu behar da beharrezkoa dela ez hitz egitea eta begiak ez irekitzea garaia baino lehen.

Gomendioa:

Gogoeta-jarduera denez, hobe da ikasgelan edo dena delako gelan, gogoetarako giro egoki batekin.



2. saioa.

a) Eskubideen txokoa. Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) Lankidetzeta-jokoak I. Amarauna.

Iraupena: 15 minutu.

Parte-hartze maila: ☆

Helburuak:

- Parte-hartzaileei gogoeta eragitea taldekide bakoitza multzoarentzat hein berean dela garrantzitsua eta beharrezkoa.

Materialak:

- Artile-haril bat.
- Amaraun baten marrazkia duen orria edo kartoi mehea (aukerakoa)
- Boligrafoak edo errotuladoreak.

Garapena:

Parte-hartzaile guztiak biribilean jarriko dira. Dinamizatzailleak artile-haril bat edukiko du, eta eskuineko pertsonaren bertute bat edo harengan gustuko duen zerbait esango du. Gero, haril-muturrari eutsirik, harila bera botako dio parte-hartzaileetako bati, eta horrek ere esango du bere eskuineko pertsonaren bertute bat; hariari eutsirik, berriz botako du harila.





Azkenean, amaraun bat eratuko da, eta dinamizataileak nabarmenduko du denok garela garrantzitsuak hari eusteko, eta batek huts egiten badu edo haria askatzen badu, dena desegin egiten dela. Eratzen dugun taldean denok egin dezakegu ekarpenen bat, eta lankidetzaren beharrezkoa da.

Ebaluazioa: hurrengo jarduerarekin batera egingo da ebaluazioa.

Kontuan izateko:

Pertsona bideratzaileari egokia iruditzen bazaio, taldekide bakoitzak idatziko du kartoi meheko amaraunaren marrazkian eskuineko taldekidearengan nabarmendutako bertutea. Horrek taldearen indarguneak ikusgaiago bihurtzen lagunduko du.

Taldekoek ez badute elkar ezagutzen, beste pertsona baten bertutea esan beharrenean, harila eskuan daukan pertsonak bere burua aurkeztuko du, bere izena zein bere nortasunaren ezaugarriren bat edo zaletasunen bat esanda.

c) Lankidetzaren jokoak II. Lankidetzaren aulkiak.

Iraupena: 20 minutu.

Parte-hartze maila: 

Helburuak:

- Parte-hartzaileen arteko lankidetzaren hobetzea.
- Parte-hartzaileak kontzientziatzea beharrezkoa dela denon parte-hartzea, helburu komun bat lortuko bada.

Materialak:

- Parte-hartzaile bezainbeste aulki.
- Musika-irakurgailua.
- Boligrafoak.

Garapena:

Parte-hartzaile bezainbeste aulki jarriko dira biribilean (bizkarraldea barrurantz). Pertsona guztiak biribiletik kanpo jarriko dira zutik. Musika entzuten den bitartean, aulkien inguruan mugituko dira, musikaren erritmoan. Musika gelditzen denean, guztiek aulki bat bilatuko dute igotzeko. Une horretan, aulkien gainean pilatuta egongo dira, eta inork ezingo du ukitu lurra. Talde osoak lortzen badu, aulki bat kendu, eta jokoari ekingo zaio berriz. Jakina, aulki berera pertsona bat baino gehiago igo ahalko dira. Pixkanaka, aulkikopuruak behera egingo du, eta zailagoa izango da pertsona guztiek haien gainean irautea. Dinamika bukatuko da segurua denean, hau da, aulki berean haur gehiegik eseri behar ez dutenean. Garrantzitsuenak da taldeko guztiek elkarri laguntzea; norbait kanpoan geratuz gero, denek galtzen dute.

Kontuan izateko:

Egokiagoa irudituz gero, lurrean uztai batzuk jar daitezke, eta parte-hartzaileak barruan sartuko dira.

d) Ebaluazioa:

Iraupena: 15 minutu

Garapena:

4 edo 5 laguneko taldeetan, talde-lanetik kostatzen zaienari eta gustatzen zaienari buruzko fitxa beteko dute:

	KOSTATZEN ZAIZU	GUSTATZEN ZAIZU
+		
-		

Talde bakoitzak labur aurkeztuko dizkio bere ondorioak gainerako ikaskideei. Aurretik, bozeramaile bat aukeraturik izango dute. Arazorik egonez gero norbaitek bozeramailea izatea bere gain hartzeko, dinamizatzaileak lagundu egingo du taldeak bere ideiak azaltzeko, presiorik egon gabe taldeko ezein pertsonarentzat.





1. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) **Irudi-antzerkia.**

Iraupena: 40 minutu.

Parte-hartze maila: ★★★

Helburuak:

- Erabakiak batera har daitezen eta talde-lana sustatzea.
- Konfiantza areagotzeko egoerak sortzea.

Materialak:

- Ikasgela edo oztoporik gabeko espazio zabala, hala nola, jolastokia edo kirol-jokalekuak.

Garapena:

3 edo 4 laguneko taldeetan, irudi geldia bat antzetzuko dute beren gorputzekin. Irudiak nahi dituzten gaiei buruzkoak izan daitezke; esaterako, alegiazko makina bat edo emozio bat (hala nola, gorrotoa, lasaitasuna, maitasuna, mespretxua, poza, etab.), edo eskubideak (jolaserako eskubidea, osasunerako eskubidea, etab.). Azpitalde bakoitzak 20 bat minutu izango ditu irudia prestatzeko; irudiak geldia izan behar du (dena dela, mugimendu errepikakor txikiak edo onomatopeiak erabil daitezke), eta gainerako taldekideen aurrean aurkeztu, eta taldean iruzkinduko da.

c) **Ebaluazioa:**

Galdera batzuk egingo ditugu, erantzuteko eta jardueraren balorazioa egiteko.

-
- Zer iruditu zaigu?
 - Nola sentitu gara?
 - Jarduera gustatu zaigu?
 - Zaila izan da zer eta nola antzetzu adostea?
-

2. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) **Lankidetzeta-jokoa I. Marka uzten duen zuhaitza.**

Iraupena: 20 minutu.

Parte-hartze maila: ★★

**Helburuak:**

- Parte-hartzaileak beren trebetasunen kontzientzia hartzera bultzatzea.
- Denon parte-hartzeak besteengandik zerbait ikasteko aukera ematen digula barneratzea.

Materialak:

- Zuhaitz baten marrazkia (enborra eta adarrak), kartoi mehe batean.
- Akuarelak.
- Ura.
- Eskuak garbitzeko xukadera bat.

Garapena:

Zuhaitzaren txantiloia gainean, taldekide bakoitzak sustrai bat marraztuko du, berak daukan bertute edo trebetasun batekin. Guztiek hori egin eta gero, taldea ados jarriko da trebetasun bakoitzari kolore bat esleitzeko. (Era berean, esate baterako, kirol-trebetasun guztiak kolore batean bil daitezke, arte-trebetasunak beste kolore batean, etab.).

Gero, taldekide bakoitzak lortu nahiko lukeen trebetasun horietako bat pentsatuko du, eta bere esku-marka utziko du adarretan, dagokion kolorearekin. Horrela, bukaerako emaitza izango da indarguneak sustraietan eta batzuek besteengandik ikas ditzakegunak hostoetan dauzkan zuhaitz bat.

Ebaluazioa:

Hurrengo jarduerarekin batera egingo da ebaluazioa.

c) Lankidetzaz-jokoak II. Labirintoa.

Iraupena: 20 minutu.

Parte-hartze maila: ★

Helburuak:

- Eraginkortasunez komunikatzeko era aurkitzea.
- Taldeko gainerakoenganako konfiantza sustatzea.


Materialak:

- Begiak estaltzeko zapia edo oihala.
- Klariona edo zinta itsasgarria.
- Mahairik gabeko ikasgela, jolastokia, gimnasioa, etab.
- Idazteko papera.
- Boligrafoa.

Garapena:

Lurrean (klarionaz, zinta itsasgarriz, eta abarrez) labirinto bat marraztuko da, zenbait probarekin ondorengo ereduarekin bat:






Txandaka, taldekide bakoitzak ibilbidea egin beharko du, begiak estalirik dituela, gainerako kideek oihuka zer egin esaten dioten bitartean. Ezin da ukitu ibilbidea egiten ari den pertsona. Taldekideek jarraibideak eraginkortasunez helarazteko era aurkitu beharko dute, helburuak lortzeko komunikazio on batek zer garrantzia duen agerian utzita.

d) Ebaluazioa:

Biribilean eseririk (aulkietan edo lurrean), idazteko paper batekin eta boligrafo batekin, boluntario bat eskatuko da egingo diren ekarpenen ondorioak jasotzeko, ondorengo galderen inguruan:

- Errazagoa zaizu bakarka ala taldeka lan egitea? Zergatik?
- Deseroso sentitu zara noiz edo noiz?
- Nola kontatuko zenioke adiskide bati ordu honetan egin duzuna?
- Zer ondorio ateratzen dituzu gaurko saiotik?

Bukatzeko, boluntarioak labur aurkeztuko ditu ondorioak.



5.2 Parte hartzeko baldintzak

Taldea ezagutzen dugu jada, eta ezagutzen gaituzte. Lan-giroa hobea da, kohesionatuagoa, eta bide ematen digu parte-hartze prozesu bakar honen, gure taldearen, eraikuntzan aurrera egiteko.

Orain aurrean dugun erronka da beharrezko oinarriak sortzea, taldeak, gure laguntzarekin, nola parte har dezakeen eta bere arreta norantz bideratuko duen identifika dezan.

Kontua ez da tratatuko diren gaiak zehaztea, ez eta halakoak lantzen hastea ere, baina beharrezkoa da, ordea, ikusten eta ulertzen hastea talde-lana ez dela banakoen baturarekin egiten. Taldeak bere buruari entzun beharko dio, eztabaidatu eta batera aurrera egin beharko du, zertan eta nola lan egingo duen erabaki baino lehen. Animo.

Ez ahaztu Landa-koaderno edo Sentimendu-kutxa adin batekoen eta bestekoen saio bakoitzean.





1. saioa.

a) Eskubideen txokoa. Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10-15 minutu.

Gogoan izateko:

1. Berraztertuko da ikasgelan arauak bete diren ala ez eta eskubideak nola errespetatu diren. Irakasleak edo dinamizatzaileak berriren bat, ipuinen bat, eta abar aurkitu badu, aipatu egin daiteke.

2. Eskubideetako bat berrikusiko da, El Salvadorren kokaturik, horretarako, Educo gure webgunean ageri den informazioa erabiliz.

<http://www.educo.org/QUE-HACEMOS/Donde-actuamos/El-Salvador>

b) Sarrerako jarduera. Irudizko pilota.

Iraupena: 10 minutu.

Parte-hartze maila: ★

Helburuak:

- Komunikatzeko beste era batzuk nabarmentzea, hitzaz gain.
- Taldekideen artean, gauzak egiteko bestelako moduak errespetatu daitezzen sustatzea.

Materialak: ezer ez.

Garapena:

Biribil batean, parte-hartzaile bakoitzak (txandaka) pilota ba daukala irudikatuko du, eta pilota horrekin egingo lukeena antzetzeko du: bote egin, buruarekin tokeak eman, eta abar, eta taldeko gainerakoek imitatu egingo dute.

Ebaluazioa:

hurrengo jarduerarekin batera egingo da ebaluazioa.

c) Kontatu ipuin bat.

Iraupena: 25 minutu.

Parte-hartze maila: ★

Helburuak:

- Haurtzarorearen Eskubideak aztertzea. "Eskubidea dut eskolan gauza asko ikasteko", "Eskubidea dut ondo bizitzeko".
- Ikastea haurrek askotan eskolara joateko zailtasunak dituztela edo ezin direla joan hainbat arrazoi direla kausa, eta hori ez dela bidezkoa, munduko haur guzti-guztien eskubidea delako.

Materialak:

• Liburua: "Por 4 esquinitas de nada" ("Lau izkina txikitxo"), Jerome Rullier. Argitaletxea: Juventud

Garapena:

"Lau izkina txikitxo" ipuina kontatzea (86 orrialdea).



Gure protagonista lau txiki bat da, Laukitxo, eta haren adiskideak zirkulu txiki batzuk dira, Biribiltxoak. Denak elkarrekin jolasten dira, baina jolas-ordua bukatu, eta gelara itzultzeko garaia heldu da (jatorrizko ipuinean Etxe Handia aipatzen da, eta edozein espazioren sinboloa izan daiteke), eta Laukitxo ezin da adiskideekin batera sartu, atea biribila delako. Denen artean konponbide bat bilatuko dute. Konponbidea aurkitzeko gai izango dira? Lagunduko diote adiskideek?

Taldeari galdetuko diogu, egoera konpontzeko: zer egingo lukete taldekide bat gelara sartu ezinean aurkituko balitz? Ezer egin dezakete beste haur batzuk eskolara joan daitezen? Nola nahiko lukete haien ikasgelak, ikastetxeak, parkeak... izatea? Zer ideia emango lizkiekete helduei haurrak hobeto bizi daitezen?

Kontuan izateko:

Ipuina ez badago ikastetxeko liburutegian, 6.4 eranskinean daukagu (86. orrialdea), edo ipuina ikus dezakegu bideo hauetako baten bidez:

https://www.youtube.com/watch?v=DBjka_zQBdQ

(haurrek kontatua)

o este <https://www.youtube.com/watch?v=YqRSgJFbJ1c>

(ipuin-kontalari batek kontatua).



d) Ebaluazioa:

Aurpegi irribarretsuen eta aurpegi tristen sistema bat erabil dezakegu, edo koloreak, saioaren "balorazioa" egiteko. Semaforo gisa, berdeak adierazten du gustatu egin zaidala (ados nago); gorriak, ez zaidala gustatu (ez nago ados); eta horiak, ez dakidala edo ezin dudala erantzun. Galderen helburua izango da parte hartzean nola sentitu diren jakitea:

- Gustatzen zaizue beste norbaitek ea zer egin nahi duzuen galdetzea?
- Gehiagotan galdetzea nahi duzue?
- Gustatzen zaizue erabaki behar izatea?
- Gustatzen zaizue taldeko gainerakoekin batera erabakitzea?

2. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10-15 minutu.

b) **Jarduera. Laukitxoren horma-irudia**

Iraupena: 25 minutu.

Parte-hartze maila: ☆☆

Helburuak:

- Taldeko gainerakoekin batera ikastea.
- Haurrek ahalik eta baldintzarik onenetan bizitzeko eskubidea dutelako ideia lantzea

Materialak:

- Paper jarraitua.
- Marrazteko eta margotzeko materialak: paper jarraitua, margoak, etab.

Garapena:

Laukitxoren ipuina gogoraziko dugu, eta nola ezin zela sartu gelan, bai eta arazoa konpontzeko haiek egin zituzten proposamenetako batzuk ere.



Horma-irudi handi bat margotzeko proposatuko da, atetzar batekin, paper jarraitu handi batean, eskolatik, erakundetik edo jarduera egiten den dena delako tokitik kanpo geratu, baina sartzea nahiko genukeen guztiarekin, Laukitxoekin gertatu zitzaigun bezala.

Halaber, haurren bizitzan egotea gustatzen ez zaizkigun gauzak ere marraztuko ditugu atetik kanpo. Eta, azkenik, gure bizitzak (eskolak, familiak...) hobeak izateko gure ustez egin ditzakegun gauzak ere marraztuko ditugu.

Kontuan izateko:

Txikienen taldeen kasuan, aurrez aukeraturiko marrazki edo argazki batzuk erakuts diezazkiekegu, eta erabakiz joango dira zein nahiko lituzketen beren bizitzan, zein ez, eta zein nahiko lituzketen egin... (honetakoak erakutsiko ditugu: haurrak eskolan ikasten, meategian lanean, haurrak jolasean; instalazio egokiak dituzten eskolak; haur-taldeak kirolean, kultura-jardueretan, medikuarenean...).

c) Ebaluazioa:

Aurpegi irribarretsuen eta aurpegi tristeen sistema erabil dezakegu, edo koloreena, saioaren "balorazioa" egiteko. Semaforo gisa, berdeak adierazten du gustatu egin zaidala (ados nago); gorriak, ez zaidala gustatu (ez nago ados); eta horiak, ez dakidala edo ezin dudala erantzun. Galderen helburua izango da nola sentitu diren jakitea:

- Gustatzen zaizue beste norbaitek ea zer egin nahi duzuen galdetzea?
- Gehiagotan galdetzea nahi duzue?
- Gustatzen zaizue erabaki behar izatea?
- Gustatzen zaizue taldeko gainerakoekin batera erabakitzea?





1. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) **Sarrerako jarduera. Telefono hondatua.**

Iraupena: 10 minutu.

Parte-hartze maila: ★

Helburuak:

- Mezu osoa entzuteko garrantzia frogatzea, esan nahi dugutena ulertuko badugu.
- Hitz egiteko (edo adierazteko) eskubidea nahiz entzunak izateko dugun eskubidea nabarmentzea.

Materialak:

- Espazio bat biribilean esertzeko.

Garapena:

Parte-hartzaileak eta pertsona bideratzailea biribilean eseriko dira. Azken hori hasiko da eskuinean duen pertsonari mezu bat isil-gordeka esaten, eta pertsona horrek eskuinean duenari errepikatuko dio mezua. Mezuak horrela jarraituko du zirkulatzen txandan. Pertsona bideratzailearen ezkerrean dagoenak jasotzen duenean, berak ozen esango du mezua. Taldeak batera erabaki dezake zer-nolako zehaztasunarekin transmititu den mezua biribil osoan zehar egindako bidaian.

Ebaluazioa:

Hurrengo jarduerarekin batera egingo da ebaluazioa.

Kontuan izateko:

Gehienetan, bukaerako mezuak ez du izaten jatorrizko esaldiaren antzekotasun handirik. Horrek taldeari barre eragin ohi dion arren, denok adierazteko eta entzunak izateko dugun eskubidea nabarmendu behar da.

c) **Jarduera. Taldeko jagoleak.**

Iraupena: 30 minutu.

Parte-hartze maila: ★★★★★

Helburuak:

- Taldeko gainerakoen aurrean erantzukizun bat hartzera gonbidatzea.
- Lantaldeak parte-hartzearen bidez sortzea.
- Parte-hartzearen bidez ebaluatzea.

Materialak:

- Etiketak edo eranskailuak.
- Errotuladoreak.

Garapena:

Taldeakide bakoitzari taldean rol-mota bat hartzeko eskatzen zaio. Honelako rolak proposa daitezke:

- **Denboraren jagoleak:** erlojua dute, eta lansaioan jarduera bakoitzaren denborak kontrolatzen laguntzen diete dinamizatzaileei.
- **Zainketen jagoleak:** taldeak nola lan egiten duen behatuko dute, ea norbait gaizki sentitzen den, nolabait teko laguntza behar duen; gatazkarik badago, era baketsuan ebazten lagunduko dute.
- **Txanden jagoleak:** eztabaida dagoenean, hitz egiteko txanda ezarriko da eskua goraturik, eta jagoleak hitzaldiak kudeatzeaz arduratuko dira.

- **Oroimenaren jagoleak:** lansaiotan izaniko gertaerak, ideiak eta emaitzak jasotzeko ardurak izango dute. Idatziz jaso ahalko dira, edo argazki-makina bat erabili, lansaiotan gertatzen denaren irudi adierazgarriak jasotzeko.

- **Jagole orokorrak:** taldeko gainerakoek behatzeko rola har dezakete, eta saioan gertatzen diren gauza guztiak eta atentzia ematen diena idatziz jasoko dituzte.

Taldeari azalduko zaio dinamizatzaile jardungo duen helduak saioa gidatuko duela, baina ez duela esku hartuko jagoleen roletan. Rolak erabaki eta gero, parte-hartzaile bakoitzari eranskailu edo pos-it bat esleituko zaio, rol bakoitzari dagokion ikonoa marrazturik. Adibidez: denboraren jagoleentzat, erloju bat; zainketen jagoleentzat, bihotz bat; txandaren jagoleentzat, 1, 2, 3 zenbakiak; oroimenaren jagoleentzat, boligrafo edo argazki-makina; jagole orokorretzat, begi bat.

Kontuan izateko:

Rol horiek jardueren, dinamiken eta talde osoko debaten hasieran jarriko dira martxan. Noiz edo noiz, azpilotaldeak antolatu behar badira, taldeari eska dakioke talde txikietan antolatzeko, premisa hauek kontuan hartuz:

- Azpilotalde bakoitzean mota guztietako jagoleak egotea.
- Neska bezainbeste mutil egotea.

Kasu horretan, kontuan izan behar da, jagoleak aukeratzean, egin behar diren azpilotaldearen kopuruarekin bat datorren gutxieneko jagole-kopuru batek egon behar duela.

c) Ebaluazioa:

Hasierako "sortzeko saio" honek metodoa saiartzeko balio behar du, hau da, jagole bakoitza edo azpilotalde bakoitza sortzeko prozesua tresna baliozkotzeko erabili behar da. Ezinbestekoa izango da bukaeran ebaluazioa egitea. Kasu honetan, ebaluazioa jardueraren zati bat da, eta, beraz, parte-hartzezko era batean funtzionatzen ikasiko dugu.

Jagole bakoitza aztertuko da, gertatu diren gauzen ikuspegitik, galdera sortzaile hauetan oinarriturik:

- Nola sentitu dira beren rolean?
- Zer zailtasun izan dituzte?
- Gehiegi parte hartu du dinamizatzaileak, jagoleen rola bereganatuta?
- Beste batzuk...

Oroimenaren jagoleek saioan zehar harturiko oharrak eta argazkiak emango dituzte, taldearen material gisa erregistraturik gera daitezzen.





a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) **Sarrerako jarduera. Gorputz-hitzak.**

Iraupena: 10 minutu.

Parte-hartze maila: ★

Helburuak:

- Talde-lana emaitza hobek lortzeko moduztat ulertzea.
- Haur guztiek eskubide berak dituztelako ideiareng inguruan lan egitea.

Materialak:

- Orri batzuetan letra larriz idatzitako hitzak.


Garapena:

Taldea zenbait azpitaldetan banatuko da (3 eta 8 lagun artean). Azpitalde bakoitzari eskubideekin zerikusia duen hitz bat esleituko zaio, ez oso luzea (Bakea, Irakurri, Hitz egin, Entzun, Bizi...). Azpitalde bakoitzak, taldekideen gorputzekin, hitza "idatzi" beharko du. Hori etzanda egin dezakete, banaka edo binaka letra eratuz, edo zutik, pertsona bakoitza letra bat egiten saiatuz. Bereizirik ez du zentzurik, baina azpitalde bakoitza elkartzen denean, hitza irakurri ere egin daiteke.

(Iturri honetatik moldatua: http://www.terractiva.net/descargas/Juegos_coop_educacion_ambiental.pdf)

Ebaluazioa:

- Errazagoa zaizu bakarka ala taldeka lan egitea? Zergatik?
- Deseroso sentitu zara noiz edo noiz?
- Nola kontatuko zenioke adiskide bati ordu honetan egin duzuna?
- Zer ondorio ateratzen dituzu gaurko saiotik?





c) Parte-hartzerako tresnak sortzeko tailerra.

Iraupena: 30 minutu.

Parte-hartze maila: ☆☆☆

Helburuak:

- Parte-hartzearekin eta ideiak adieraztearekin zerikusia duten Haurren Eskubideetako artikulua modu praktikoan tratatzea.
- Haurrek konfiantza handiagoz parte hartzea ahalbidetzeko tresnak diseina eta presta daitezen sustatzea.

Materialak:

- Hondakin-materialak: makilak, kartoizko kutzak, gaztatxo-kutzak, oihalak, CD-kutzak, paperezko poltsak, etab.
- Goma-aparra.
- Koloretako zelofan-zintak.
- Kartelak, orriak, koloretako kartoi meheak, marrazteko eta margotzeko materiala.

Garapena:

Haurren eskubide nagusiak ezagutu eta gero (aurreko jardueretan), gonbita egingo zaie adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko eta beren ideiak komunikatzeko duten eskubidearen inguruko gaiak iruzkin ditzaten. Honelakoak errazteko tresnak proposa dezatela eskatuko zaie:

- Haien ideiak eta proposamenak entzunak izatea, eta beraien artean ere partekatu ahal izatea.
- Beren sentimenduak adierazi ahal izatea, edo beraiek tartean dauden ekintzez balorazioa egin ahal izatea.

Proposamen honetan, bost adibide ematen ditugu sormen-tailerrak egiteko, prozesuko beste jarduera batzuetarako lagungarriak izango diren tresnak prestatzeko helburuz:

- **Mikrofona:** mikrofono bat egitea kartoizko hodiekin eta makilekin, oihala edo goma-aparra koloretako zintarekin goialdean bilduta. Mikrofonoak hitz egiteko txanda moderatzen laguntzeko balioko du, eztabaidak eta talde-biltzarrak barne hartzen dituzten jardueretan. Tresna hau oso baliagarria izan daiteke txiki-entzatzat, jendaurrean hitz egiteko esperientzia ez baitute, eta hitza hartzera motibatzen laguntzen du.

- **Iradokizun-postontzia:** ikasgelan, ikastetxean, elkarteetan, gazte-zentroan, eta abarretan iradokizunak jaso ahal izateko euskarri bat prestatzea. Taldeak dituen sormenaren, espazioaren, materialen, ideien eta abarren arabera, hainbat modu sor daitezke ideiak biltzeko (zirrikitu bat duten kartoizko kutzak edo koloretako hodiak, kartoiz eginiko eta apainduriko robotak, etab.).

- **Emozio-kutzak:** aurpegi alai eta tristeekin apainduriko gaztatxo-kutzak erabiltzea. Alaitasuneko eta tristeziako sentimenduak adierazteko balio dute, edo taldean interesekoak izan daitezkeen bestelako sentimendu batzuk (haserrea, esker ona, etab.), emotikonoak balira bezala; era berean, jarduera edo lansai bat ebaluatzeko tresna izan daitezke, aurreko beste atal batzuetan ikusi dugunez. Taldeari eska dakioke oharrak idatz ditzatela prozesuan zehar izan dituzten sentimenduen edo egin dituzten balorazioen ingurukoei buruz.

Halakoak bukaeran irakurriko dira, eta ideiak eta sentimenduak bilakatu eta/edo eraldatu diren moduari buruzko istorio bat aterako da.

- **Komunikazioaren txokoa:** parte-hartze prozesua abian jartzen duen taldearen txoko edo espazio bat diseinatzea, kanpoko talde edo pertsonekin partekatuzko: mugarriak, ideiak, deialdiak, ekintza jakinetarako baliabide, talentu edo aliatuak bilatzea, eta abar. Taldeak erabakiko du atal bat baino gehiago edukiko



dituen ala ez; txokoa kokatzeko toki bat bilatuko du; euskarria aukeratuko du (kortxo, esekilekua, kartela, etab.); bai eta arreta erakartzeko sormenezko era bat, komunikazio-arduradunak, eta abar ere.


• **Mezu bat zuretzat:** panel bat sortzea, taldekide bakoitzak toki bat izan dezan, gainerakoek berarentzat mezuak, argazkiak, beharrezko informazioa, poesia bat, kanta bat, igarkizun bat, sekretu bat, eta abar utzi ahal izateko. Adibidez, koloretako gutun-azalekin presta daiteke (taldekide bakoitzak bere kolorea), bakoitzaren izena, argazkia edo erretratua jarrita. Beste formatu batzuk ere erabil daitezke, hala nola, CD-kutxa hutsak, paperezko poltsa birziklatuak, eta abar. Tresna honek bide ematen du bi pertsonaren artean sentimenduak pribatuan adierazteko: esaterako, zerbait eskertzeko, oso egokia ez zen zerbait esateagatik barkamena eskatzeko, eta abarretarako.


d) Ebaluazioa:

Taldekoak biribilean jarrita, galdera sortzaile hauek egingo dira:

- Zer alderdi iruditu zaizkie positiboak tresna prestatzean?
- Zer zailtasun izan dituzte?

Oroimenaren jagoleek saioan zehar harturiko oharrak eta argazkiak emango dituzte, taldearen material gisa erregistraturik gera daitezzen.







1. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) **Sarrerako jarduera: Eskultura.**

Iraupena: 10 minutu.

Parte-hartze maila: ☆

Helburuak:

- Komunikatzeko beste era batzuk nabarmentzea, hitzaz gain.
- Hainbat ikuspuntu daudela eta guztiak aintzat hartu behar direla egiaztatzea.

Materialak: ezer ez.

Garapena:

Parte-hartzaileak bikoteetan banatuko dira. Bikote bakoitzean, bata eskultorea izango da, eta bestea, buztinezko bloke bat, modelatzen utziko duena. Eskultoreei hitz bat edo bi emango zaizkie (esaterako: askatasuna edo jolasa), eta buztinarena egiten ari den kidearekin irudikatzen saiatu beharko dute, hitzik egin gabe, gainerakoak ere ideia bera gauzatzen saiatzen ari direla jakin gabe horrela.

Hitz bakoitza irudikatzen bukatzen dutenean, gainerako eskultorei begiratzeko eskatuko zaie. Bakoitzak kontzeptu bera bestelako modu batean adieraziko du, eta, horrela, balioa eman ahalko diegu gai berari buruzko ikuspuntu desberdinei.

Gero, bikoteak rola trukatuko ditu, eta prozesua beste hitz batzuekin errepikatuko da (adibidez: hezkuntza edo adiskidetasuna).

Ebaluazioa:

- Errazagoa zaizu bakarka ala taldeka lan egitea? Zergatik?
- Deseroso sentitu zara noiz edo noiz?
- Nola kontatuko zenioke adiskide bati ordu honetan egin duzuna?
- Zer ondorio ateratzen dituzu gaurko saiotik?

c) **Aulkien jokoa.**

Iraupena: 30 minutu.

Parte-hartze maila: ☆☆☆

Helburuak:

- Munduko desberdintasuna ikusgai jartzea.
- Gogoeta egitea desorekaren arrazoiei buruz.
- Giza Garapenaren faktoreak ulertzea.

Materialak:

- Parte-hartzaile bezainbeste aulki.
- Mapak.

Garapena:

Parte-hartzaileak zenbatu, eta ikasgelaren erdian parte-hartzaile bezainbeste aulki jarriko ditugu. Kontinenteen izenak ikasgelako bazter banatan jarriko ditugu.

Jarduera honetan, oso argi irudikatzen da mundua nola dagoen banaturik, bai biztanleen aldetik, bai aberastasunaren aldetik. Dinamizatazaileak mapak gelako hormetan banatuko ditu. Jarraian, taldeari azalduko dio munduko biztanleriaren banaketa irudikatuko dutela. Parte-hartzaileei esango die irudika dezatela Lurreko

7 mila milioitik gora biztanleak ordezkaten dituztela. Ikasgela mundua balitz, eta taldea, guztira dagoen biztanleria, parte-hartzaile bakoitzak X milioi ordezkatuko lituzke (ikus 1. koadroa).

Parte hartzaileen banaketa munduko biztanleriaren banaketaren arabera

2001-eko Datu Basea

Parte hartzaileen	Europa	Afrika	Asia /Ozeania	Amerika Latina /Karibea	Ipar America	1 Parte hartzaileen ordezkatu
12	2	1	7	1	1	457 milioi biztanle
13	2	1	8	1	1	422 milioi biztanle
14	2	2	8	1	1	392 milioi biztanle
15	2	2	9	1	1	366 milioi biztanle
16	2	2	9	2	1	343 milioi biztanle
17	3	2	10	2	1	325 milioi biztanle
18	3	2	10	2	1	305 milioi biztanle
19	3	2	11	2	1	289 milioi biztanle
20	3	3	11	2	1	274 milioi biztanle
21	3	3	12	2	1	261 milioi biztanle
22	3	3	13	2	1	249 milioi biztanle
23	3	3	14	2	1	239 milioi biztanle
24	4	3	14	2	1	229 milioi biztanle
25	4	3	15	2	1	219 milioi biztanle
26	4	3	15	2	2	211 milioi biztanle
27	4	3	16	2	2	203 milioi biztanle
28	4	4	16	2	2	196 milioi biztanle
29	4	4	17	2	2	189 milioi biztanle
30	4	4	18	2	2	183 milioi biztanle
31	4	4	18	3	2	177 milioi biztanle
32	5	4	18	3	2	171 milioi biztanle
33	5	4	19	3	2	166 milioi biztanle
34	5	4	20	3	2	161 milioi biztanle
35	5	4	21	3	2	157 milioi biztanle
36	5	5	21	3	2	152 milioi biztanle
37	5	5	22	3	2	148 milioi biztanle
38	5	5	23	3	2	144 milioi biztanle
39	6	5	23	3	2	141 milioi biztanle
40	6	5	24	3	2	137 milioi biztanle
41	6	5	24	4	2	134 milioi biztanle
42	6	5	25	4	2	131 milioi biztanle
43	6	5	26	4	2	128 milioi biztanle
44	6	6	26	4	2	125 milioi biztanle
45	6	6	27	4	2	122 milioi biztanle
46	7	6	27	4	2	119 milioi biztanle
47	7	6	28	4	2	117 milioi biztanle
48	7	6	28	4	3	114 milioi biztanle
49	7	6	29	4	3	112 milioi biztanle
50	7	6	30	4	3	110 milioi biztanle

1. koadroa

Gero, esparru geografikoen arabera banatzeko eskatuko diegu (hau da, kartelen azpian jar daitezela), haien ustez munduko biztanleria banaturik dagoen modu berean, munduko biztanleriaren banaketa ahalik eta zehatzena irudikatzeko. Fase honetan, dinamizatzaileak ados jartzen, kontsentsua lortzen, utziko die, eztabaidatzen eta erabakitzen, galderak eginez eta aztarnak emanez, guk datuak ezagutzen baititugu (ikus 2. koadroa).

	Biztanle milioika	Mila milioika \$ BPG	Urteko BPG \$ biztanleko
Afrika	771	1.773	2.300
Asia/Ozeania	3.597	16.269	4.523
Amerika Latina/Karibea	523	3.667	7.011
Ipar America	319	10.636	33.342
Europa	870	12.577	14.456
Guztizkoa	6.080	44.922	7.376

2. koadroa



Munduko aberastasunaren arabera aulkien banaketa (urteko BPG)

2001eko Datu Baseak

Parte hartzaileen	Europa	Afrika	Asia /Ozeania	Amerika Latina /Karibe	Ipar América	1 aulki ordezkatu
12	4	0	4	1	3	1881 mila milioi \$ USA
13	4	0	5	1	3	1736 mila milioi \$ USA
14	4	1	5	1	3	1612 mila milioi \$ USA
15	4	1	5	1	4	1505 mila milioi \$ USA
16	4	1	6	1	4	1411 mila milioi \$ USA
17	5	1	6	1	4	1328 mila milioi \$ USA
18	5	1	7	1	4	1254 mila milioi \$ USA
19	5	1	7	2	4	1188 mila milioi \$ USA
20	5	1	7	2	5	1129 mila milioi \$ USA
21	6	1	7	2	5	1075 mila milioi \$ USA
22	6	1	8	2	5	1026 mila milioi \$ USA
23	6	1	8	2	5	981 mila milioi \$ USA
24	7	1	9	2	6	941 mila milioi \$ USA
25	7	1	9	2	6	903 mila milioi \$ USA
26	7	1	9	2	6	868 mila milioi \$ USA
27	8	1	10	2	6	836 mila milioi \$ USA
28	8	1	10	2	7	806 mila milioi \$ USA
29	8	1	11	2	7	778 mila milioi \$ USA
30	8	1	11	3	7	752 mila milioi \$ USA
31	9	1	11	3	7	728 mila milioi \$ USA
32	9	1	12	3	8	705 mila milioi \$ USA
33	9	1	12	3	8	684 mila milioi \$ USA
34	10	1	12	3	8	664 mila milioi \$ USA
35	10	1	13	3	8	645 mila milioi \$ USA
36	10	1	13	3	9	627 mila milioi \$ USA
37	10	1	14	3	9	610 mila milioi \$ USA
38	11	1	14	3	9	594 mila milioi \$ USA
39	11	2	14	3	9	579 mila milioi \$ USA
40	11	2	15	3	9	564 mila milioi \$ USA
41	11	2	15	3	10	551 mila milioi \$ USA
42	12	2	15	3	10	537 mila milioi \$ USA
43	12	2	16	3	10	525 mila milioi \$ USA
44	12	2	16	4	10	513 mila milioi \$ USA
45	12	2	16	4	11	502 mila milioi \$ USA
46	12	2	17	4	11	491 mila milioi \$ USA
47	13	2	17	4	11	480 mila milioi \$ USA
48	14	2	17	4	11	470 mila milioi \$ USA
49	14	2	18	4	11	461 mila milioi \$ USA
50	14	2	18	4	12	451 mila milioi \$ USA

3. koadroa

Iturriak: PNUD. Giza Garapenaren Txostena, 2003

ITECO (Belgika)

Eztabaida moderatu egingo da, ikuspuntu guztiak aintzat hartzeko eta akordioak egin ditzaten. Taldea egonkortu eta mugitzeari utzi eta gero, egiazko zifrak emango ditugu, eta irudikapena zuzendu egingo da, beharrezkoa izanez gero.

Jokoaren atal honetan, badauzkagu pertsonak banatuta; orain, aberastasunak banatuko ditugu. Aulkiak munduko BPG (barne-produktu gordina) ordezkatzen dute; aulki bakoitzak, hain zuzen, X milioi dolar ordezkatzen ditu (**ikus 3. koadroa**); hartara, guztientzako dirua badago, baina nola dago banaturik? Taldekiei eskatuko zaie beren kontinentearentzat egiaz dituela uste duten bezainbeste aulki hartzeko. Prozedura aurreko faseko berbera da: taldeak eztabaidatu egingo du, eta dinamizatzaileak galderak egingo ditu, aztar-nak emango ditu eta iradokizunak egingo ditu, taldeko gainerakoak ados jartzen diren bitartean. Gero, dinamizatzaileak egiazko zifrak emango ditu, eta irudikapena zuzenduko du.



Jarduera bukatzeko, esparru geografiko bakoitzeko pertsonak beren kontinenteko aulki guztiak okupatu beharko dituzte. Ezingo da aulkirik hutsik geratu, eta inor ezingo da lurrean geratu. Aulkietara nola edo hala igo beharra dago.

Kontuan izateko:

Eztabaidarako galdera batzuk:

- Zenbat aldiz birkokatu behar izan dituzue zeuen buruak edo aulkiak?
- Egiaz ezagutzen zenuten bizi garen mundua?
- Zer zati kostatu zaizue gehien ebaztea? Banaketaren batek harritu zaituzte bereziki?
- Zer sentitzen duzue Europan eta Ipar Amerikan, ikusten duzuen nola dagoen Afrikaren, Asiaren eta Hego Amerikaren multzoko jendea?
- Hainbeste aulki behar ziren hain jende gutxi esertzeko?
- Zer sentitzen duzue Afrikan eta Asian, Europakoak eta Ipar Amerikakoak hain eroso ikusten dituzuenen?
- Uste duzue zifra globalak aski direla herrialde bakoitzaren barruan gertatzen dena azaltzeko?
- Bai parte-hartzaileak, bai dinamizatzailea, Europan bizi gara; irudikapenean bezain eroso bizitzeko irudipena dugu ala gauza asko falta zaizkigula uste dugu?
- Uste duzue Europan eta Ipar Amerikan bizi diren pertsona guztiak hain ondo bizi direla ala badaude ongi-zaterik gabe bizi diren pertsonak?

Harrigarria gertatzen da aulki gehien dauzkan kontinentea Asia izatea, baina gogoan izan behar da Asian Japonia, Qatar eta beste herrialde petrolio-ekoizle batzuk daudela... eta gorantz doazen zenbait ekonomia, India edo Txina kasu; izan ere, azken horietan per capita aberastasuna oso txikia den arren, zenbateko gordinetan oso handia da, bi herrialde horietan 2.500 milioi biztanle daudelako.





Gehienetan, Latinoamerikan pertsona bezainbeste aulki daude; eroso daude, beraz. Orduan, galde dezakegu: Latinoamerikan ez dago pobreziarik? Eta aberastasunaren banaketaz egin beharko dute gogoeta: pertsonak ez dute aulki bana; ordea, pertsona batek ia aulki guztiak izango ditu, eta pertsona asko aulki erdirekin konformatu beharko dira. Latinoamerika da munduan aberastasunaren eta pobrezia-artearen arteko desberdintasun-indize handienetako bat duen eremua.

- Uste duzue egia dela zenbat eta biztanle gehiago, pobrezia handiagoa izango dela?
- Aurreiritzi hori gezurtatzen duen kontrako adibideren bat aurki dezakezu? Adibidea. Japonia: gainpopulatu, baliabide naturalik gabekoa, eta oso aberatsa. Zaire: biztanle-dentsitate txikia, baliabide naturalez joria, eta oso txiroa.
- Zergatik uste duzue gertatzen direla desberdintasun horiek, herrialde edo kontinente berean bizi izanda??

Iparraldeko herrialdeak dauzkaten aulki horiek guztiak, diru-aberastasun guztia, haien lurraldeetatik atera zen? Badituzte beharrezko baliabide energetiko eta material guztiak? Beste toki batzuetatik hartu zituzten? Zein eskualdetatik? Nola geratu ziren eskualde horiek?

Mundua hornitzeko erabiltzen diren aberastasun natural gehienak biztanle-dentsitate handia eta pobrezia-indize handia dituzten herrialde horietan egoten dira, eta halakoak gosea pairatzeraino ere iristen dira. Nolakoak dira nazioarteko harremanak aberastasun-trukean? Munduko sistema bidezkoa ala bidegabekoa da? Zer egin daiteke sistema hori aldatzeko?

d) Ebaluazioa:

Arbel batean edo paper jarraitu batean bi termometro edo bi erregela horizontal marraztuko ditugu, batari "Taldea" eta besteari "Ni" esleiturik. Xedea da pertsona bakoitzak saioan izan duen parte-hartzearen nahiz taldearen lanaren balorazioa egin dezan. Neurgailu bakoitzean, norberaren zein taldearen parte-hartze mailari dagokion marka egin beharko dute.

Bukaeran, dinamizatzaileak biribil batekin inguratuko du "Taldea" neurgailuaren balorazio handieneko aldea. Parte-hartzaileei argudioak eskatuko zaizkie, balorazio handienak eta txikiak eman dituztenei bereziki.

2. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) **Sarrerako jarduera: Molekulak.**

Iraupena: 10 minutu.

Parte-hartze maila: ★

Helburuak:

- Taldean lan egiteko, besteengan konfiantza izateko beharra ulertzea.
- Elkartzeko, taldean lan egiteko eskubidea sartzeta.

Materialak: ezer ez.

Garapena:

Azalduko dugu pertsona, animalia eta landare guztiok molekula izeneko gauza txiki batzuek osaturik gaudela, eta molekula horiek atomo izeneko beste gauza txikiago batzuk elkartzean sortzen direla. Taldekide bakoitza atomo bat izango da, eta beste atomo batzuekin elkartu beharko du, molekula bat osatzeko. Atomoen ezaugarria da mugi eta mugi ari direla beti; hala, bada, etengabe mugitu beharko dugu (jauzika). Taldeak mugitzen segundo batzuk eman eta gero, esango dugu: biko molekula (binaka elkartu



beharko dira); hiruko molekula; seiko molekula... berez antolatu beharko dute esaten diegun molekulak elkartzeko. Aldaerak ere sar ditzakegu, hala nola: bi neska eta mutil bateko molekulak, bi mutil eta bi neskako molekulak...

Ebaluazioa:

Hurrengo jarduerarekin batera egingo da ebaluazioa.

c) Iritzi-erruleta.

Iraupena: 30 minutu.

Parte-hartze maila: ★★

Helburuak:

- Taldekide guztiek Haurren Eskubideei buruz dituzten ideiak era azkar eta errazean ezagutzea, konfrontaziorik gabe.
- Ideiak eztabaidatzeko tresnak ematea, banakoen ekarpena faltatu gabe, haur lotsatiei parte hartzea errazago eginez, horrela.
- Ideiak kolektiboki eraikitzen ikastea, entzute aktiboa erabiliz taldekide guztien ideiak entzuteko..

Materialak:

- Musika-irakurgailua.
- Papera eta boligrafoak.

Garapena:

Haurren eskubide bat aukeratuko da, edo haurren eguneroko bizitzako egoera zehatzago bat, eskubideren baten urraketari, herrialdeen arteko desberdintasunei edo bizitza arrunteko auziren bati loturik (auzoko patioan ez diete pilotan ibiltzen uzten; ez diete iritzirik eskatzen eskolaz kanpoko jardueri buruz; ikastetxean bulling-eraren bat dago; eskola inguruko udal espazio publikoak utzita daude, etab.).

Bi talde antolatuko dira, parte-hartzaile kopuru berekoak: talde bat biribilean jarriko da, kanporantz begira; bestea ere biribilean jarriko da, bestea inguratuz eta barrurantz begira. Aurrez aurre bikoteka gertatzeko moduan. Dinamikaren lehen fasean, kanpoko haurrek egiten dituzte galderak, barrukoak iritziak ezagutzeko, barruko biribilaren errotazioaren bidez. Iritzietarako txandak azkarrak dira (1-2 minutu baino gehiago ez galderako). Dinamizatzaileak denborak hainbat eratan marka ditzake, musika-tresna batekin, txaloa joz, hondo-musika itzaliz... Kanpoko haurrek barrukoak galdekatu eta gero, rolak trukatu dituzte: oraingoan, kanpoko biribila jiratuko da, eta barrukoek galdetuko dute. Horrela, taldekide guztiek gainerakoek ideiak ezagutuko dituzte, eta, gainera, dinamikak aurrera egin ahala, bestelako iritzi eta ideiak eratu joango dira, entzundakoetan oinarrituta, eta horiek beste galdeketa-txanda batean emango dituzte aurrerago.

Bi iritzi-txandak bukatutakoan, taldeari eskatuko zaio tratatzekoa den gaiari buruzko ikuspuntu orokorrak partekatzeko, honelako galderak eginez:

- Zer ideia iruditu zaizkit interesgarriak?
- Zer gauza ikasi ditut?
- Zer egin dezakegu hemendik aurrera?
- Hasieran zenuen ideien bat aldatu da taldeko gainerakoek ekarpenen ondorioz?

Kontuan izateko:

Garrantziko alderdi bat da ea parte-hartzaileek baduten praktika ideien eztabaidan (esaterako, Haur Kontseiluko kideak). Horrela ez bada, komeni da gaia oso ondo zehaztea, eta jakin-mina piztea taldeko gainerakoek pentsatzen dutenaz, eragiten dien eta interesatzen zaien gai baten inguruan.

Gomendioak: taldeak emandako erantzunekin zerrenda bat osatzea, dokumentatu ahal izateko eta eraginerako/salaketarako materiala edukitzeko haien iritziz hobetu beharrekoaz.

d) Ebaluazioa:

Arbel batean edo paper jarraitu batean bi termometro edo bi erregela horizontal marraztuko ditugu, batari "Taldea" eta besteari "Ni" esleiturik. Xedea da pertsona bakoitzak saioan izan duen parte-hartzearen nahiz taldearen lanaren balorazioa egin dezan. Neurgailu bakoitzean, norberaren zein taldearen parte-hartze mailari dagokion marka egin beharko dute.

Bukaeran, dinamizatzaileak biribil batekin inguratuko du "Taldea" neurgailuaren balorazio handieneko aldea. Parte-hartzaileei argudioak eskatuko zaizkio, balorazio handienak eta txikienak eman dituztenei bereziki.



Bloke honetan prozesuaren ekuatorean sartzen gara, eta une honetan, hain zuzen, mahaigaineratu behar dugu taldeak norantz jarraitu nahi duen. Espazioak eman ditugu parte-hartzaileak beren eskubideak zein diren jabetzeko, taldea kohesionatzeko, munduko haur guzti-guztiek eskubide berberak izan behar dituztela ulertzeko. Aurreko blokea ere oso garrantzitsua da, parte-hartze erreala gertatzeko zer baldintza egon behar diren jakiteko balio izan baitigu. Gure ikuspegitik, ez dugu ahaztu behar prozesuaren beraren garrantzia, eginiko bidea, saio bakoitzaz gozatzea.

Etapa honetan, Haurren Eskubideen eta Parte-hartzerako Hezkuntzaren zeharkako bi ardatzak lantzen jarraituko dugu, baina proiektua zehazten hasteko garaia da. Egingo ditugun jardueretan, helburua izango da haurrek parte-hartze prozesuen simulazioak esperimintatzea eta haietan murgiltzea, eta nahi den xedea lortzeko haiek parte hartzea beharrezkoa ikusten duten egoerak identifikatu ahal izatea. Azken batean, oinarriak jarriko dira hurrengo blokean ezagut dezaten parte-hartze prozesuak nolakoak diren eta zer aurki dezaketen, alde onak eta txarrak, oztopoak, sariak.

Ez ahaztu landa-koaderno edo sentimendu-kutxa adin batekoen eta bestekoen saio bakoitzean.





1. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) **Zapata bidaiazaleak.**

Iraupena: 40 minutu.

Parte-hartze maila: ☆

Helburuak:

- Taldekideen arteko lankidetzeta-dinamikak hobetzea.

Materialak:

- Zaku bat edo zabor-poltsa handi bat, zapatak sartzeko.
- Begi-mozorro bat edo zapi bat, dinamizatzaillearentzat.
- Gutxienez, bi dinamizatzaille.

Garapena:

Parte-hartzaile bakoitzak zapata bat sartu behar du, eta norbaitek itzuli arte itxaron behar du, berreskuratze-ko. Beren tokian egon behar dute, txanda iristen zaien arte.

Hezitzaileek taldeari esango diote oso nekaturik daudela eta mina dutela oin batean. Hori dela eta, zapata bat erantziko dute, eta besteei haiek ere erantzeko gonbita egingo diete. Haurrak lurrean eseririk egongo dira, biribilean.

Haur bakoitzak, dinamizatzailleak bezala, bere zapata zaku handira sartuko du, eta zakua biribiletik aterako da, lapur batek eraman dezan, taldekoek hori aurrez jakin gabe.

Dinamizatzailleetako bat zapaten bila abiatuko da, eta lapurra (beste dinamizatzaille bat) harrapatuko du. Zakua berreskuratu duenez, zapatatako bat aterako du, eta jabea bilatu beharko du, emateko eta berriz jantzen laguntzeko. Zapata berreskuratu duenak aterako du hurrengo zapata, eta gauza bera egingo du zapataren jabearekin. Eta horrela hurrenez hurren, parte-hartzaile guztiek beren zapata berreskuratu eta taldeko gainerakoei laguntzeko aukera izan arte.

c) **Ebaluazioa:**

Haurrak biribilean eseririk daudela, taldeko guztiek erantzun dezaten saiatuz, honelakoak galdetuko ditugu:

- Gustatu zaizu jokoak?
- Zer behar da denok geure zapatak jantzita eduki ditzagun?
- Zer gustatzen zaizu gehiago, besteei laguntzea ala besteek zuri laguntzea?
- ...Eta bururatzen zaizkigun beste galdera batzuk

2. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) **Nola gustatuko litzaidake izatea...**

Iraupena: 40 minutu.



Parte-hartze maila: ☆☆☆

Helburuak:

- Taldekide guztien parte-hartzea sustatzea.

Materialak:

- Papelografoa, kartoi mehea, orriak, etab.
- Errotuladoreak, margoak, tenperak, etab.
- Aldizkari-zatiak.
- Adierazpen artistikorako balio duen beste edozein material.

Garapena:

Taldea lau azpitaldetan banatuko da. Bakoitzari paperezko euskarri bat emango zaio (kartoi meheak, orriak, etab.), bai eta beren iritzia islatzeko egokitzat jotako materialak ere (errotuladoreak, margoak, aldizkari-zatiak edo egokitzat jotako beste edozein).

Bi taldetan, bi marrazki egingo dituzte, hots, marrazki bana:


- Marrazki batean, izan nahiko luketen eskola/ikasgela edo parkea/hiria islatuko da; marrazkian gehien atsegin dutenak agertu beharko du, haurrak gustuko jarduerak egiten, eta abar.
- Beste marrazki batean, eskola/ikasgela edo parkea/hiria islatuko da, gustatzen ez zaizkien gauzak nabarmenduta (zikinkeria, gauza apurtuak, etab.); marrazkian, atsegin ez dituzten eta hobetu nahiko lituzketenak agertu beharko dute.

Azkenik, talde bakoitzak eginikoa azalduko die gainerako guztiei. Dinamizatzaileak talde bakoitzaren emaitzari zerbait gehitzera animatuko ditu besteak.

c) Ebaluazioa:

Biribilean eseririk, galdera hauek egingo zaizkio taldeari:

- Gustatu zaizue lan egiteko modu hau?
- Nola sentitu zarete zeuen iritzia eman ahal izatean?
- Inork sentitu du entzun ez diotela?
- Uste duzue zerbait ikasi duzuela jardueratik edo eskubideen txokotik?





1. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) **Detektibe aztarnagabea I.**

Iraupena: 40 minutu.

Parte-hartze maila: ★★★★★

Helburuak:

- Haurren Eskubideei loturiko gaiak ezagutaraztea, taldekideen ingurunean zein beste haur batzuen testuinguruan.
- Espazioak sortzea, haurrek beren eskubideak nola ulertzen dituzten adierazteko.

Materialak:

- Espazioa: ikasgela edo antzekoa.
- Plastilina.
- Igarkizunak dauzkaten fitxak.
- Kartoi meheak.
- (Erabiliko den teknikaren arabera) Errotuladoreak eta/edo margoak; edo aldizkari, egunkari, komikietako irudiak, kola, eta artaziak.

Garapena:

Irudizko detektibe batek (hezitzailea, pertsona bideratzaile bat edo taldekide bat izan daiteke) Haurren Eskubideei loturiko zenbait egoera konpondu behar ditu. Egoera horiek ez dira bakarrik gertatzen jarduera egiten ari diren haurren testuinguruan, edozein herrialdetan, testuinguru soziokulturaletan, eta abarretan gerta daitezkeenak dira.

Lehen saio honek bi atal izango ditu:

1. atala:

Lehen atal honetan, haurrak garatzeko elikadurarik egokiena izateko eskubidearen inguruan lan egingo dugu. Horretarako, taldeari igarkizunak dituzten fitxa batzuk banatuko dizkiogu (ikus orrialdeko 87, eranskinna 6.5.), eta detektibeak iragarkizun bakoitzak zer elikagai ezkututzen duen asmatu beharko du. Laguntzeko, taldeak aldi bakoitzeko dena delako elikagaia modelatu beharko du plastilinaz. Igarkizun-kopuruari dagokionez, haur bezainbeste igarkizun izan daitezke, edo igarkizun bana bikoteka. Pertsona bideratzaileak taldeko haur-kopurua begiratu, eta banaketa ekitatiboa egingo du.

2. atala:

Bigarren atal hau haurrek etxe eta ingurune seguruan bizitzeko duten eskubideari buruzkoa da. Kasu honetan, detektibeak ez daki zer izan behar duen etxe batek, han bizi ahal izateko. Horretarako, taldeak erakutsi beharko du zer den benetan beharrezkoa etxe bat bizitzeko modukoa izan dadin, gehien gustatzen zaien teknika erabiliz, hala nola, margoekin marraztuz, collagea eginez. Collagea eginez gero, aurrez eskatu beharko dugu aldizkariak, egunkari zaharrak, eta abar ekartzeko. Taldeak zalantzak baditu, galderak egin daitezke gaian sartzeko; esaterako: Zer behar dugu geure burua garbitzeko? Zer behar dugu gauean, ikusi ahal izateko? Zer behar dugu hotzik ez pasatzeko? Eta abar.

Kontuan izateko:

Saio honen lehen atala bukatzean, taldeari gogoraziko diogu "munduko haur guzti-guztiok elikadura osasungarria izateko eskubidea dugula". Era berean, bigarren atala bukatzean, gogoraziko diogu "munduko haur guzti-guztiok ondo egoteko etxe batean bizitzeko eskubidea dutela".

c) Ebaluazioa:

Biribilean eseririk, galdera hauek egingo zaizkio taldeari:

- Gustatu zaizue jardueraren bi atalak landu ditugun modua?
- Ondo sentitu zarete?
- Pentsatzen duzue munduko haur guztiok ikusi dugunaz goza dezaketela?
- Zer egin dezakegu guk, beste haur batzuek bizitza hobea izateko?

2. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.





b) Detektibe aztarnagabea II.

Iraupena: 40 minutu.

Parte-hartze maila: ☆☆☆

Helburuak:

- Haurren Eskubideei loturiko gaiak ezagutaraztea, taldekideen ingurunean zein beste haur batzuen testuinguruan.
- Espazioak sortzea, haurrek beren eskubideak nola ulertzen dituzten adierazteko.

Materialak:

- Espazioa: ikasgela edo antzekoa.
- Paper jarraitua, horma-irudirako.
- Margoak (aukeratu den teknikaren arabera): errotuladoreak, tenperak, esku-pintura, akuarelak, etab.
- Kartoi meheak eta/edo orriak (aukerakoak).
- Horma-irudia apaintzeko elementuak (hostoak, loreak, adartxoak, eskulanak, etab.).

Garapena:

Jarduera aurreko jardueraren jarraipena da (orduan, detektibe aztarnagabeak taldearen laguntza behar zuten, haurren garapenerako funtsezko hainbat elementu igartzeko). Bigarren saio honetan, berriz ere, haurren garapenerako beharrezko eta onuragarriak diren elementuen inguruan lan egingo du taldeak.

Jarduerak bi atal izango ditu:

1. atala:

Kasu honetan, hezkuntzarako sarbidea eta eskola, garapen-espazioa den aldetik, jorratuko ditugu. Oraingoan, "detektibeak" konbentzitu beharko du taldea, eskola ez dela aspergarria. Horretarako, dinamizatzaileak taldea motibatu beharko du, ikastetxean zer gauza egin ohi dituzten eta gehien gustatzen zaiena zer den galdetuta. Eskolaz ondo pentsatu eta gero, horma-irudi batean islatuko dute, nahiago duten teknika erabiliz. Orrietan marraztu dezakete bakarka, eta, gero, horma-irudian jarri; esku-pinturarekin, tenperekin edo akuarelekin margotu dezakete; kartoi mehetan marraztu dezakete taldeka, eta, gero, horma-irudian elkartu; eta abar.

2. atala:

Gure eskolako gauza garrantzitsuenak eta gehien gustatzen zaizkigunak islatu ditugu jada; orain, haurrek erabakiko dute nola apaindu nahi duten sortu dugun horma-irudia. Horretarako, eta gogorarazita munduko haur guzti-guztiek eragiten dieten gauza guztiei buruz iritzia emateko eskubidea dutela, horma-irudia osatuko dute eskura dituzten elementuekin, hots, aurrez bilatu, bildu eta/edo sortu dituzten elementuekin.

Kontuan izateko:

1. atalerako:

Lana errazteko, zer teknika eta/edo material erabiliko ditugun adostu daiteke, halakoak aurrez prestatzeko horrela, ikastetxean zer dagoen eskuragarri, materialen kostua, eta abar kontuan izanik; era berean, taldeari zer elementu lortu nahi dituen aukeratzeko bide eman dakioke, horma-irudia apaintzeko. Elementu horiek jarduera egiten den ingurunearen arabera izango dira; izan ere, aire zabalean, parke batean, ikasgela batean, eta abarretan egin daiteke, taldean non dagoen, elementuak batzuk edo besteak izango baitira.



2. atalerako:

Nabarmenduko dugu denok dugula iritzia adierazteko eskubidea eragiten diguten gaietan, baina hori bezain garrantzitsua dela, haurren inguruan hartzen diren erabakietan, adingabeen interes gorena aintzat hartu behar dela. Horrek esan nahi du haurren inguruan gertatzen den guztiak haur horientzako onuragarriena izan behar duela, eta, horretarako, haur bakoitzaren hezkuntzaren ardura duten pertsonek zer esan handia daukate.

Lan hau gazte-zentroko, ikastetxeko, eta abarretako guztientzako eremuetan jarri behar da ikusgai.

c) Ebaluazioa:

Biribilean eseririk, galdera hauek egingo zaizkio taldeari:

- Gustatuko litzaizueke eskola bestelakoa izatea?
- Zer iruditu zaizkizue jarduerak; ulertzen duzue eskubideak berberak direla mundu haur guzti-guztientzat?
- Non jarri nahi dituzue sortu dituzuen panelak?





1. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) **Munduari begira.**

Iraupena: 40 minutu.

Parte-hartze maila: ★★★

Helburuak:

- Munduko desberdintasuna ikusgai jartzea.
- Gogoeta egitea desorekaren arrazoiei buruz.
- Giza Garapenaren faktoreak ulertzea.

Materialak:

- Ordenagailua eta proiektagailua, mapak ikusteko.
- Jarduera egiteko ikasgela.

Garapena:

1. atala: Lorea eta etxea.

Haurrei esango zaie gaur mapa pila bat ikusiko dugula, ia-ia geografia-eskola izango dela. Baina, hasi aurretik eta minutu pare batean, koadernoan edo orri batean, bi marrazki egin beharko dituzte: etxe bat eta lore bat (ez baduzue dinamika ezagutzen, zeuek ere marrazki horiek egiteko gomendatzen dizuegu, jarraitu aurretik). Ez da begiratuko zer marrazten ari diren.

Denbora igaro eta gero, eta haien marrazkiak erakutsi baino lehen, esango diegu igarleak garela, eta geure 2 marrazkiak erakutsiko dizkiegu (geuk eginak, edo Interneteko irudiak).

Erakutsiko ditugun marrazkiak izango dira bi isurkiko teiltua duen etxe tipiko bat eta bitxilore bat.

Ikasgelakoan artean, %95ek bi marrazki horiek izango ditu eginak, zer edo zer aldatuta, beharbada, baina marraztu daitezkeen etxe guztietatik, antzeko egitura izango dute, tximinia barne (bestelako etxe-mota batzuen adibideak jarriko dira, haiek –agian– bizi diren eraikinak; galdetuko da zenbatek daukaten tximinia, eta beste etxe-mota batzuk aipatuko dira: iglua, tipiak, gazteluak, habiak, etab. Azalduko da, botanikoek diotenez, munduan 10.000 lore-mota baino gehiago daudela, eta horietatik guztietatik ia guztiok bitxilore bat marraztu dugula (baliteke norbaitek tulipa edo arrosa marraztea). Zein da horren arrazoiak? Bada, txikitatik egiten irakatsi digutena, mundua ikusi eta interpretatzeko era; baina gaur, planeta beste era batean ikusteko betaurreko batzuk erabiliko ditugu.

2. atala: Mapak. (Eranskina 6.7, orrialdea 89).

Mapak Lurraren gainazal guztiaren edo haren zati baten irudikapen lauak dira. Irudikapenak dira, hau da, ez dira errealitate zehatza.

Gaurko eskolan, mapa ugari ikusiko ditugu, eta guztiak ondo daude, baina taldearen laguntza beharko dugu, gogoeta egin ahal izateko eta mapak ulertu ahal izateko.

1. mapa: Petersen mapa, azpikoz gora.

Irudia azpikoz gora ageri dela, taldeari galdetuko diogu: Gaizki dago mapa? Baten batek baietz erantzungo du, buruz behera dagoela. Galdetuko diegu ea non dagoen iparraldea, non dagoen hegoaldea (litekeena da haiek apur bat nahastea). Laster, kokatu egingo dira, mapa azpikoz gora egonik ere, eta gogoraraziko zaie gaurko eskolan ez dagoela maparik gaizki, baina, itxuraz, apur bat deseroso daudenez, mapari buelta eman diezaiokegula, eta “zuzen” jarri. Berriz ere galdetuko zaie ea zerbait arraro ikusten duten, eta hor baten batek koloreak aipatuko ditu, norbaitek esan arte kontinenteak luzatuta daudela. Horretaz ohartzen direnean, 2. mapa jarriko dugu pantailan.



2. mapa: Mercatorren proiektzioa.

Kontinente luzatu horiekin deseroso egoten jarraitzen dutenez, "beren mapa" jarriko diegu, betidanik ikusi izan dutena, beren lorea, beren etxea. Azalduko diegu noiz sortu zen mapa hori eta zertan erabili zen, hau da, asko erabili zela nabigazioan eta merkataritza-bideetara iristeko. Baina mapa honek badu zerbait bitxia, Antartika edo Groenlandia, handi-handiak dira.

Galdera batzuk egin daitezke mapa honi buruz:

- Nola da posible Antartika (14 milioi km²) gainerako kontinente guztiak batera (137 milioi km²) bezain handia izatea ia?
- Mapa honek adierazten du Afrikaren azalera ia hiru aldiz handiagoa dela, Europarena baino?
- Ohartzen zara zer alde dagoen Hego Amerikaren (18 milioi km²) eta Groenlandiaren (2,5 milioi km²) artean?

3. mapa: mapa-alderaketa.

Ikusi dugunez, bizitza osoan ikusi izan dugun mapak "engainatu" egiten gaitu, ikusten denari dagokionez. Zergatik gertatzen da hori? Kartografian, arazo nagusietako bat da plano batean (mapa) gainazal esferiko bat (Lurra) irudikatzea. XIX. mendetik, gutxienez, jakina da ezinezkoa dela esfera baten puntu guztiak plano batean irudikatzea, eta, gainera, jatorrizko irudiak (esferikoa) distortsioak jasango dituela beti, planoan irudikatzean. Hori dela eta, Berlinen jaiotako eta Arno Peters izeneko gizon batek kontinenteen tamaina errealak irudikatzen dituen mapa bat sortu zuen 1979an; horri esker, ikus dezakegu zein handia den Afrika, beste lurralde batzuen aldean:

Dinamizataileak, atal hau bukatzeko, gogoraziko du mapak ez daudela gaizki, irudikapen desberdinak direla, besterik ez, eta gure asmoa dela taldeak beste mapa-mota batzuk ikusteko aukera izatea, beharbada ikusten ohiturik dauden beste batzuek gain.

4° Beste mapa batzuk.

Bestelako mapak ikusten ari garenez, mapa desberdin gehiago ikustea ona izango da, agian:

<http://www.thepoliticalcesspool.org/jamesedwards/wp-content/uploads/2014/05/Worldatnight.jpg>
Mundua gauzez. Argindar-gastua; ikusiko dugu planetaren zati handi bat ilunpean dagoela.

http://xcmoulds.com/upload/Image/contact_map/world_en.jpg

Mapa hau erakutsi, eta ondo ala gaizki dagoen galdetuko da. Zer gertatzen zaion galdetuko diegu, eta haien ustez zer izan daitekeen. Ez badute ondoriorik ateratzen, galdetuko diegu ea, haien ustez, non ikasiko den mapa hori: erantzuna da, Txinan.

Azalduko da, guri geure burua gutxi gorabehera maparen erdialdean ikustea gustatzen zaigun bezala, munduko gainerakoei ere bai. Inork ez du nahi bazter batean egon eta txikia izan; erosoago sentitzen gara erdialdean bagaude, protagonistak bagara, eta jendeak kasu egiten badigu.

Kontuan izateko:

Ikusi dugunez, mapak dira ikusi nahi ditugun, erakutsi nahi ditugun, Munduaren irudikapen batzuk; horregatik, beste forma batzuk dauzkaten eta beste arazo batzuk erakusten dituzten bestelako zenbait mapa ikusiko ditugu:

[Neskek Lehen Mailako Hezkuntza duten sarbidea](http://www.worldmapper.org/images/largepng/201.png)
<http://www.worldmapper.org/images/largepng/201.png>

[Hauren desnutrizioa](http://www.worldmapper.org/images/largepng/182.png)
<http://www.worldmapper.org/images/largepng/182.png>

[Hauren lana](http://www.worldmapper.org/images/largepng/135.png)
<http://www.worldmapper.org/images/largepng/135.png>



Mapa horiek ikusi eta gero, taldearekin gogoeta egin dezakegu zenbait gai buruz:

- Zer iruditzen zaizu munduko aberastasunaren banaketa?
- Badute loturarik aberastasunaren banaketak eta eskubideen banaketak?
- Badakizue zein diren zuen eskubideak, haurren eskubideak?
- Munduko sistema bidezkoa ala bidegabea da? Zer egin daiteke sistema hori aldatzeko?

2. saioa.

a) Eskubideen txokoa. Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) Bidaia baten ametsa.

Iraupena: 50 minutu. Edo dinamizatzailleak egoki iritzitako saioak.

Parte-hartze maila: ★★★★★

Helburuak:

- Haurren Eskubideen inguruko eztabaida sustatzea, haien ingurunea nahiz beste kultura batzuk aintzat harturik, guztien intereseko proposamenak eginez.
- Taldearen gaitasunak agerian jartzea, etorkizunerako nahi diren ekintzak irudikatzen.

Materialak:

- Kartoi meheak, aldizkariak eta irudiak, collagea egiteko.
- Orriak, margoak.
- Ideiak biltzeko postontzia.

Garapena:

Dinamikak bost fase ditu.

• **Irudimen-fasea:** aldez aurretik, ekintzetarako ideiak biltzeko postontzi batzuk jarriko dira, ekintza horiek ikasgelan, ikastetxean, gazte-zentroan, aisialdi-klubean, haur-kontseiluan, edo dena delakoan aurrera eramateko. Geroago, ideia-jasa egingo da, haurrek egin nahi dituzten ekintza zehatzetarako proposamenei buruz, esaterako: beren ingurunean edo beste kultura batean Haurren Eskubideen alorrean gertatzen den urraketa bat salatzea; beste batzuekin partekatu nahi duten gairen bati buruzko informazioa ematea eta haren zabalkundea egitea; intereseko gaien inguruan egin dituzten lan, proiektu, ikerketa edo ekoizpenek izaniko emaitzen berri ematea; postontziko ekarpenekin batera.

• **Erabakitze-fasea:** emaitzak aipatu, eta taldeari gehien interesatzen zaion proposamena aukeratuko da, adostasun bidez, hots, guztiak interesaturik eta gustura egoteko moduko aukera bat hartu, honako galdera hauek eginik:

- Zein da gehien gustatzen zaidan proposamena (ez da zertan izan norberak proposatutakoa)?
- Zein proposamen ez zait batere gustatzen eta jarriko nioke betoa (azaldu zer den "betoa jarri")?
- Zein proposamen ez zait gustatzen, baina onartuko eta sostengatuko nuke?
- Proposamen berri bat sor liteke, aurretiko beste proposamen batzuen ideietan oinarriturik?

Taldeak, oro har, proposamen bat baino gehiago onartuz gero, batera definitzen saiatuko gara, bata bestea baztertu gabe, elkarrekin konbinatuta, inor kanpoan ez geratzeko; adibidez: "flashmob bat eta kartel bidezko kanpaina bat egitea". Adostasunik ez badago, pertsona bakoitzak bizpahiru proposamen bozkatzeko



ko eskatuko da. Aukeraketaren emaitzak agerian jarriko dira, berriz eztabaidatuko da, eta intereseko ekintza aukeratuko da (ez da zertan izan bozkatuena). Honelakoak izan daitezke eztabaidarako galderak:

- Zein proposamen da deigarriena, sormen handienekoa?
- Zein jarriko genuke martxan gogo handiagoarekin?

• **Kritika-fasea:** xedea da jarrera kritikoa motibatzea, aukeratutako ekintzaren aurrean negatibo agertzeko, arazoak bilatzeko, gonbita eginez. Arazoen zerrenda egingo da, eta txartel batzuetan idatziko dira, marrazkiak eginda.

• **Asmamen-fasea:** planteatu diren kritikak eta arazoak positiboan jarriko dira, taldekide guztien gaitasunak eta trebetasunak kontuan hartuta, bai eta ekintzari ekiteko taldeak izan ditzakeen kanpo-aliatuak ere, sormenezko kontzeptu-eskema baten bidez azalduta.

• **Ekintza diseinatzeko fasea:** xedea da taldekide guztien artean taula bat betetzea, honelakoak zehazturik: ekintza-mota; denbora; behar diren eta eskura dauden baliabideak; tartean diren pertsonak; zereginen banaketa; eta abar.

Kontuan izateko:

Hau da eskubideen behatokiaren jarduera berariaz lantzen ez dugun lehen aldia, une honetara arte lorturiko emaitza guztiak hasierako egoeraren azterketa bihurtuko baitira, edo haurrak nola bizi diren aditzera ematen duen informazioaren bilketa.

Lehen fasean ideia asko sortuko dira, eta, beharbada, batzuk burugabeak izango dira, baina garrantzitsua da taldeak propiotzat sentitzea azkenean garrantzitsuenak direla erabakitzen duten ideia guzti-guztiak. Horretarako, eztabaida eta adostasuna sustatu behar dira saioan zehar.

Gogoan izan dezagun garrantzitsuena parte-hartze prozesua dela, ez bukaerako emaitza. Taldeak aurrera eramane nahi dituen ideiak dauzkagunean, topa ditzakegun oztopoak aztertuko ditugu, eta, gero, arazo horiek positiboan jarriko ditugu, zereginak banatzeko koadro bat antolatuta, non parte hartu nahi duten guztiak beren tokia daukaten eta prozesuaren barruan sentitzen diren.



Hemen proposatzen diren jarduerak tresna batzuk dira, haurrak beren ingurunean era aktiboan parte hartzera eramateko, ez bakarrik ikasgelaren edo erakundearen barruko jarduera konkretu gisa, baizik eta parte-hartzearen bidez beren errealitatea hobetzeko proiektu gisa.

Aurkezten dizkizugun proposamen hauek, geure esperientzian oinarriturik, erabilgarritzat jotzen ditugu irakasle eta hezitzaileentzat, baina, dena dela, taldearen irudimenak eta kezkek beraiek emango dute bidea askoz jarduera gehiagotarako, non parte hartu nahiko duten, eta prozesua gidatu.

Ez ahaztu Landa-koaderno edo Sentimendu-kutxa adin batekoen eta bestekoen saio bakoitzean.



1. saioa.

a) Eskubideen txokoa. Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) Nazioarteko egunak zaintzen.

Iraupena: 40 minutu.

Parte-hartze maila: ☆☆☆

Helburuak:

- Haurren Eskubideei eta nazioarteko egunei buruzko ezagutza handitzea.
- Talde-lana, informazioaren bilaketa, prozesaketa eta trukea, sormena eta gogoeta sustatzea.

Materialak:

- Din A3 tamainako kartoi meheak.
- Errotuladoreak.
- Kola.
- Artaziak.
- Hatz-pintura.





Garapena:

Taldeari munduan egiten diren nazioarteko egunen berri emango zaio. Zer diren eta zergatik egiten diren azalduko da. Besteak beste, hauek proposatzen ditugu:

Martxoaren 8a - Emakumeen Nazioarteko Eguna.

Maiatzaren 21a - Elkarrizketa eta Garapenerako Aniztasun Kulturalaren Munduko Eguna.

Ekainaren 5a - Ingurumenaren Munduko Eguna.

Irailaren 8a - Alfabetatzearen Nazioarteko Eguna.

Urriaren 5a - Irakasleen Munduko Eguna.

Azaroaren 20a - Haurren Nazioarteko Eguna.

Abenduaren 10a - Giza Eskubideen Eguna.

Nazioarteko egun bakoitzerako, kartel bat prestatuko dugu, honako hauek dauzkala:

- A. Honelako izenburua: "Gaur ... (r)en Munduko / Nazioarteko Eguna da"
- B. Dena delako nazioarteko eguna ilustratzen duen irudi bat (marrazkia, argazkia, collagea...)
- C. Kartel bakoitza dagokion egunean edo astean esekiko da, ikastetxeko ageriko toki batean.

Horrez gain, kartelari argazki bat egingo zaio, taldekideen familiei bidaltzeko, zaintzaileen lana aintzat har dezaten eta zer nazioarteko egun dugun jakin dezaten.

Ekintza hori abiapuntu, eta errealitate bakoitzaren arabera, jarduera osagarriak egin daitezke, hala nola, dena delako nazioarteko egunaren gaiari buruzko adierazpen bat osatzea taldean (poema, kanta, etab.), edo egokitzen jotzen diren beste jarduera batzuk.

c) Ebaluazioa.

- Zer ikasi dugu landutako eskubideari buruz?
- Uste dugu eskubide hori munduko haur guzti-guztientzat betetzen dela?
- Zer egin dezakegu eskubide hori bete dadin laguntzeko?



1. saioa.

a) Eskubideen txokoa. Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) Irakurleen aitabitxi-amabitxiak.

Iraupena: 40 minutu.

Parte-hartze maila: ☆☆☆☆

Helburuak:


- Haurrak beraiek Haurren Eskubideen aldeko sustatzaileak izateko espazioa sortzea.
- Haurren ekimena sustatzea, ezagutza transmititzeko, eta taldekideekin ikasgelatik/erakundetik kanpoko eremuetan parte hartzen ikasteko.

Materialak:

"Kezkamuxelak" ipuina

Garapena:

"Kezkamuxelak" istorioaren bidez, taldea bere ikastetxeko edo parte hartzen duen dena delako espazioko kontu-kontalari bihurtuko da. Kontu askok kezkatzen zuten Ibai, zapatek, hodeiek, euriak, txori erraldoiek... Kezkaren kezkaz ezin zuen lorik egin. Zorionez, amonak bazekien zer behar zuen beldurrei aurre egiteko. Haren sekretuaren berri izan eta gero, Ibai ohartzen da ez duela gehiago kezkatu behar. Anthony Browne S.L. Fondo de Cultura Económica de España.





Ipuina SlideShare-n: <http://es.slideshare.net/Luisatdea/ramon-preocupon>
 Youtube-ko bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=T36-d2J87Og>

Ipuin honek kulturarteko osagai bat dauka, oso garrantzitsua: KEZKAMUXELAK. Ikasgelan aztertzeari ekiteko proposatzen dizuegu:

- Zein herrialdeetakoak dira kezkamuxelak?
- Ezagutzen dugu ezer Guatemalaz?
- Zein kulturatakoak dira?
- Kultura horren entzueraz bazenuen lehenago ere?

Aitabitxi eta amabitxiek ipuinak hainbat ikasgelatan edo ikastetxeko edo erakundeko hainbat espaziotan kontatzen dituztenean amaituko da jardura. Ipuin hau kontatzen ikasteaz gain, kezkamuxelei buruz ikasitako istorioa partekatu ahaliko dute, eta beren panpinak egin ahaliko dituzte lagundutako irakurleari oparitzeko, eta azken horrek, hala, etxean panpina txiki horrek zer esan nahi duen azal dezan.

Nola egin kezkamuxela delako panpina?:

<http://conartecreo.blogspot.com.es/2011/07/munecos-quitapesares.html>
<http://vimeo.com/14651710>

Kontuan izateko:

Irakurleen aitabitxi-amabitxien ekimena maila guztien curriculumaren barruko jardura bat da, zeharkakoa. Ekimen horretan, taldekideak beheragoko mailetako edo adin txikiagoko haurren (Haur Hezkuntzako 3 urtetik 5 urtera bitartekoak) amabitxi/aitabitxi bihurtzen dira, irakurraldiak partekatuz. Hala, aitabitxi-amabitxien eginkizuna izango da ipuinak modu landuan irakurtzea, irakurketaren edukien hobekuntza gisa; parte-hartzaileen arteko harreman pertsonaletan lagunduko du horrek, eta adin bateko eta besteko haurrak elkarrengana hurbilduko dira.

c) Ebaluazioa.

Biribilean eseririk, galdera hauek egingo zaizkio taldeari:

- Gustatu zaizue lan egiteko modu hau?
- Nola sentitu zarete jardura hauek egitean?
- Inor ez da ondo sentitu noiz edo noiz?
- Zer da gehien eta gutxien gustatu zaizuena?
- Uste duzue jardueratik zerbait ikasi duzuela?





1. saioa.

a) **Eskubideen txokoa.** Ikus 26-27. orrialdeak.

Iraupena: 10 minutu.

b) **Haurren alde.**

Iraupena: 50 minutu.

Parte-hartze maila: ★★★★★

Helburuak:

- Haurrak beraiek Haurren Eskubideen aldeko sustatzaileak izateko espazioak sortzea.
- Haurrek jarduera eraldatzaileak sortu eta gauzatzeko ekimena izan dezaten sustatzea, prozesua barneratuz.

Materialak:

- Ordenagailua/Internet edo Herriaren Defendatzaileari buruzko agiriak.
- Papera eta idazteko materiala.

Garapena:

Haurrei eskatuko diegu ozen pentsatzeko ea zer gauza berri jakin dituzten Eskubideen Txokoaren jardueraren bidez. Arbelean, pertsona guztiok ditugun eskubideei loturiko ekarpenak idatziko dira: bizitzeko eskubidea; etxebizitza-eskubidea; familia-eskubidea; atsedeen hartzeko eskubidea; ondo tratatuak eta errespetatuak izateko eskubidea, etab.

Guztien artean azalduko da eskubide horien oinarritzko ezaugarriak direla unibertsalak izatea, ezin zaiela uko egin..., eta, horregatik, gobernuek eskubideok betetzeko konpromisoa hartzen dutela beren gain, eta babesteko mekanismoak dituztela (legeak). Haurrei dagokienez, gainera, haiek badute Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak (HEK), Nazio Batuen Batzar Nagusiaren nazioarteko itun bat, haurren oinarritzko giza eskubideak aitortzen dituena.

Konbentzioaren funtsezko lau printzipioak ekarriko ditugu gogora:

1. bereizkeriarik eza; 2. haurraren interes gorena; 3. bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea; eta 4. haurren parte-hartzea.

Espanian bada figura bat, Herriaren Defendatzailea deritzona, eta pertsona guztiok jo dezakegu harengana, baldin eta funtsezko eskubideak betetzen ez direla ikusten badugu. Nor den eta kexak nola aurkez dakizkion ikertuko dugu. Kexa bat idatziko dugu Herriaren Defendatzailearen Bulegoarentzat, eta gaia izango da, gure ustez, nonbait betetzen ez diren haurren eskubideak.

c) **Ebaluazioa.**


Biribilean eseririk, galdera hauek egingo zaizkio taldeari:

- Gustatu zaizue lan egiteko modu hau?
- Nola sentitu zarete jarduera hau egitean?
- Inor ez da ondo sentitu noiz edo noiz?
- Zer da gehien eta gutxien gustatu zaizuen?
- Uste duzue jardueratik zerbait ikasi duzuela?

Haur eta nerabeen eskubideak ezagutzeko abian jarritako bidaia –parte-hartzearen, garapenerako hezkuntzaren eta herritartasun globalaren ikuspegitik, hain zuzen– oso prozesu interesgarria da haurrei eragiten dieten errealitateak esploratzeko eta eraldatzen ikasteko. Ikaskuntza eragiten da geure errealitatearen eraldaketatik, tartean diren pertsona guztien parte-hartzearekin (helduak zein haurrak).

Etengabeko ebaluazioak lagundu egiten digu sorturiko gogoetak partekatzen, hobetu daitezkeen alderdien balorazioa egiten, eginiko hutsetatik ikasten, eta lorturiko lorpenez pozten eta atsegin hartzen.

Ez ahaztu landa-koaderno edo sentimendu-kutxa adin batekoen eta bestekoen saio bakoitzean.





1. saioa.

a) Esperientziarekin konektatu.

Iraupena: 50 minutu.

Parte-hartze maila: ★★★★★

Helburuak:

- Komunikatzeko eta entzuteko gaietan sakontzea, parte hartzeko modu gisa.
- Gure iritziak, sentimenduak eta beharrak komunikatzen ikastea.

Materialak:

- Musika-irakurgailua eta bozgorailuak.
- Orriak.
- Hainbat koloretako errotuladoreak eta argizariak.

Garapena:

Dinamizatzaileak galdetuko du zer esperientzia positibo edo negatibo izan dituzten prozesuan zehar, parte-ka ditzaten, nahi izanez gero. Haurrari egoera horren aurrean duen beharrizana – edo eskerrak emateko edo zer gustatzen zaion, zer ez zaion gustatzen, zergatik uste duen dela horrela, nola nahiko lukeen izatea, pertsona horri zer esango liokeen esateko aukera– adierazten laguntzarren, adibideak jarriko dira, beren iritziak adieraztera anima daitezen.

Musika entzuten dela, espazioan zehar ibiltzeko eskatuko dugu; lehenik, esperientzia “negatiboetan” edo hainbeste gustatzen ez zaienetan pentsatzeko, eta, gero, “positiboetan” edo gehiago gustatu zaienetan pentsatzeko. Poliki ibiliko dira, isilik eta lehenago bizitako egoeretan pentsatuz. Musika gelditzen denean, sentimendua keinu geldirik irudikatzen eskatuko diegu, edo ateratzen zaigun keinuren batekin (bi egoeretan egingo dugu hori).

Gero, gelako eremu bat aukeratuko dugu, eta orri batean esperientzia positiboek buruz zein negatiboek buruz komunikatu nahi duguna idatziko edo marraztuko dugu. Garrantzitsua da esperientziatik komunikatu nahi dituzten beharrezan –edo gustatzen zaienaren eta gustatzen ez zaienaren– adierazpena igaro ahal izan daitezen, pertsona horiei zuzenean hitz egiten ariko balira bezala.

Musikaren soinua utziko dugu, eta marrazkiak edo idatziriko iritziak toki banatan utziko ditugu: alde batean, esperientzia positiboak, eta bestean, negatiboak. Gero, iritziak eta sentimenduak iruzkinduko ditugu.

Kontuan izateko:

Prozesuaren hasieran, “sentimendu-kutxa” bat diseinatu dugu, saio bakoitza bukatzean taldekideek beren iritzi eta sentimenduak sartzeko tresna gisa; hori dela eta, garrantzitsua da material hori berreskuratu, eta azken ebaluazioko dinamikarako lan-materialtzat erabiltzea. Halaber, dinamika berriz egin daiteke, prozesuari buruzko galderak gehiturik; esaterako, 6. kapituluaren (BALIABIDEAK, MATERIAL OSAGARRIAK ETA ERANSKINAK. Proposatutako bideoak eta jokoak), ebaluazio-fitxaren ereduaren ageri diren galderak erabiliz.

b) Ebaluazioa.

Gogoeta egiteko eta saioa ebaluatzeko iradokizunak:

- Nola sentitzen dira hain garrantzitsua den zerbaiti buruz galdetzen dietenean?
- Ohituta daude beste norbaitek beraiei horrelako galderak egiten?
- Haien ustez, haien erantzunek hurbileko pertsonen lagun diezaiekete?



1. saioa.

a) **Dianak diseinatzen.** (6.8, ebaluazio dianaren eredua).

Iraupena: 50 minutu.

Parte-hartze maila: ★★★★★

Helburua:

- Parte-hartzearen bidezko ebaluazio bat egitea, adierazleak kolektiboki diseinatuz era dinamikoan.

Materialak:

- Errotafolioa eta papelografoa.
- Errotuladoreak.
- Gometsak.

Garapena:

Haurren Eskubideak ezagutzeko eta eskubide horien aldeko ekintzak sustatzeko prozesua ebaluatzeko gonbita egingo zaie haurrei, eta, horretarako, zirkulu zentrokidez osaturiko diana bat erabiliko da (1etik 10era zenbakiturik egongo da, eta 10 puntuazio onena izango da, dianaren erdigunean kokatua). Balorazioa egiteko, zenbait gai zerrenda batean bilduko ditu taldeak, adibidez:

- Haurren Eskubideei buruz eta beste testuinguru batean bizi diren haurren errealitateei buruz ikasi duguna.
- Lortu duguna, hasierako egoeraren aldean.
- Taldearen lana.
- Saioetan erabili ditugun materialak.
- Lagundu digun hezitzailea.
- Dibertsioa.
- Eta abar.

Balorazioa egiteko sortu diren gaiekin, dianan sekzioak ezarriko dira. Balorazioa egiteko gaiak dauzkaten dianak diseinatu eta gero, haurrei eskatuko zaie beren iritziak dianara "jaurti" ditzatela, eta sekzio bakoitzean (balorazioa egiteko gaia) balorazioari dagokion zirkulua (1etik 10era) gomets batekin edo errotuladoren egindako puntu batekin markatuko da.

Bukaeran, emaitzak era grafikoan ikusiko dira, eta taldean iruzkinduko da non dagoen puntuazio-kontzentrazio handiena ebaluatu den gai bakoitzean. Alderdi deigarrii buruzko iritziak eskatuko dira (puntuazio oso txikiak edo oso handiak), bai eta iradokizunak ere, hobetu behar ziren gauzen inguruan, puntuazio txikiak handiagoak izateko.

Ebaluazioa:

Jarduera ebaluazio bat da berez.

Kontuan izateko:

Prozesuaren hasieran, "landa-koaderno" bat diseinatu dugu, saio bakoitza bukatzean taldekideek beren iritzi eta sentimenduak sartzeko tresna gisa; hori dela eta, garrantzitsua da material hori berreskuratzea, azken ebaluazioko dinamikarako lan-materialtzat erabiltzeko. Diana bat baino gehiago diseina daiteke, gai asko sortzen badira balorazioa egiteko. Geroago, dianen emaitzak erabil daitezke emaitzak grafikoki erakusteko.

Haurrek ebaluatzeko erabaki dituzten gauzez gain, hezitzaileek zerrenda osa dezakete, ebaluatzeko garrantzitsuak iruditzen zaizkion beste gai batzuekin.



1. saioa.

a) Sei kapela pentsatzeko.

Iraupena: 50 minutu.

Parte-hartze maila: ★★★★★

Helburuak:

- Pentsamendu kritikoa zein sormenezko pentsamendua sustatzea, ideiak, ekintzak edo etorkizunerako proposamenak aztertu eta ebaluatzeko.

Materialak:

- Kartoi-mehez eginiko koloretako kapelak.
- Errotafolioa eta papelografoa edo arbela.
- Errotuladoreak.

Garapena:

Edward de Bono doktorearen “sei kapela pentsatzeko” dinamikaren moldaketa bat da (jatorrizkoa arazoak ebazteko metodologiatzat erabiltzen da). Koloretako kartoi mehe batzuekin, kapela batzuk egingo dira, kono edo gnomo-kapela gisa. Koloreek hauek adierazten dituzte:

- Horia: pentsamendu positiboa, baikortasuna, pentsamendu eraikitzailea.
- Grisa: pentsamendu negatiboa, deabruaren abokatua.
- Zuria: pentsamendu objektiboa, gertaerak, datu zehatzak (emozio eta balorazio positibo edo negatiborik erakutsi gabe).
- Gorria: emozioak eta sentimenduak adieraztea, intuizioa.
- Urdina: pentsamendu moderatua, kontrola, arrazoiak ematen ditu.
- Berdea: sormenezko pentsamendua, beste aukera batzuk ematen ditu.

Hasteko, taldeari eskatuko zaio zerrenda bat kolektiboki osatzeko, prozesutik ebaluatu nahi dituzten gaiekin: denbora, materialak, hezitzaileak, lorturiko emaitzak, ikasitakoa, etab.

Gero, taldea 6 azpitaldetan banatuko da, eta azpitaldeei kapela bana emango zaie.

Ebaluatu beharreko gai bakoitza aztertzean, eskatuko da azpitalde bakoitzak bereiz pentsa ditzala balorazioak, kapelaren koloreari dagokion rola hartuz. Azpitaldeen iritzi guztiak partekatuko dira, eta eztabaida txiki bat egingo da, ondorioak ateratzeko.

Gai bat ebaluatzeko txanda bakoitzean, kapela aldatzeko eskatuko da, azpitalde bakoitzak pentsamendua mota guztiak bizi ahal izateko. Dinamizatzaileak eztabaiden emaitzak arbelean edo papelografoan idatziko ditu, baloratzeko eta eztabaidatzeko txanden emaitzak erregistratzeko. Saioaren bukaeran, dinamikan deigarrienak iruditu zaizkien alderdiei buruzko eztabaida bat egingo da.

Ebaluazioa:

Jarduera ebaluazio bat da berez.

Kontuan izateko:

Prozesuaren hasieran, “landa-koaderno” bat diseinatu dugu, saio bakoitza bukatzean taldekideek beren iritzi eta sentimenduak sartzeko tresna gisa; hori dela eta, garrantzitsua da material hori berreskuratzea, azken ebaluazioko dinamikarako lan-materialtzat erabiltzeko. Taldearen mailaren arabera, egokitu eta laburtu egin daiteke, kapela gutxiago erabilita.



Eta prozesu honen budaeran, zer egingo dugu?: Ikaskuntza-ziklo berri baten hasiera

Gidaren hasieran, 4. kapituluan, hezkuntza-prozesu gisa parte-hartzean oinarrituriko metodologia bat garatzeko gonbita egiten genuen, Parte-hartzezko Ekintza Ikerketa erabiliz.

Orena da hurrek eta parte hartzen duten helduek taldean azter ditzaten lortu diren emaitza eta balorazioak; azken horiek, hain zuzen ere, behatzeko eta balorazioa egiteko tresnen bidez lortuz joan dira hasitako bidean (landa-koadernoak, sentimendu-kutxa, praktikatik ikasteko proposaturiko dinamikak, baita bukarako galdetegi bat ere). Esparru dialogiko batean, debateko eta topaketako esparru batean, testuinguru bakoitzera egokituriko hizkera batekin, gertatu denari buruzko gogoeta egin daiteke taldearentzat adierazgarria den era batean, oro har zein partikularki: zer lortu dugun eta bidean geratu dena; zertan asmatu den edo zertan, beharbada, huts egin den; zerk sentiarazi gaituen ondo eta zerk ez hainbeste...

Berriz nabarmenduko dugu praktikari buruzko gogoeta eginez sortzen direla ikaskuntzak. Gaizki sentiarazten gaituzten emaitzetatik ere ikas daiteke eta estrategiak sor daitezke, sormenezko alternatiba batzuekin bide berriak urratzeko. Askotan, itxuraz emaitza negatiboak izan dituzten esperientziak abiapuntu berritzat hartzen dira, eta, orduan, taldeak ahalduntzen dituzten prozesuak sortzen dira, zailtasunak gainditzen direnean, hain zuzen. Taldearen ekarpen eta iradokizunen bidez, proiektu berriak planteatzen dira, berrikuntza interesgarriekin. Egokitzen diren eta malguak diren hezkuntza-komunitateak sendotuta irten daitezke kontrako egoeren aurrean: horri, hain zuzen, erresilientzia deritzo.

Haur eta nerabeen hezkuntza emozionala eta erresilientziarako hezkuntza oso interesgarriak dira gaur egungo munduan, non aldaketa handiak etengabe gertatzen ari diren.







Proposatutako bideoak eta jokoak.

6.1. Haurren Eskubideei buruz:

- Konbentzioa lau bertsiotan:
<http://plataformadeinfancia.org/sites/default/files/Cuaderno%209-12%20Web.pdf>
- Unicef: <http://www.unicef.es/actualidad-documentacion/noticias/aprender-en-clase-sobre-los-derechos-de-la-infancia>
- Amnistía: <http://amnistiacatalunya.org/edu/carpeta3/es/index.html>
- Arartekoa: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_2043_3.pdf
- Compasito, eskubide-hezkuntzari buruzko eskuliburua (ikus haurren eskubideei buruzko jarduera, Eskubideen Txokoaren barruan).

6.2. Parte-hartezko Ekintza Ikerketari buruz:

- Fals Borda, O. *Conocimiento y poder popular*. Siglo XXI-Punta de Lanza: Bogotá, 1985.
- Zenbaiten artean. *La investigación social participativa*. Ed. El Viejo Topo: Bartzelona, 2000.
- Latorre, A. *La investigación-acción. Conocer y cambiar la práctica educativa*. Graó: Bartzelona, 2003
- Martí, J. *La investigación-Acción-Participativa. Estructura y fases*. 1998.
- López de Ceballos, P. *Un Método Para La Investigación-Acción Participativa* (3ª Ed.) Edit. Popular: Madril, 1998.
- Basagoiti Rodríguez, M.; Bru Martín, P.; Lorenzana Alvarez, C. *IAP de bolsillo: manual sobre Investigación-Acción-Participativa*. Red Cimas: 2001.

6.3. Parte-hartezko metodologiei buruzko zenbait material:

- Jares, Xesús R. *El placer de jugar juntos. Nuevas técnicas y juegos cooperativos*. (4), 1992, p. 71. Editorial CCS: Madril, 2001.
- Villasante, T. R. *Redes de vida desbordantes. Fundamentos para el cambio desde la vida cotidiana*. Catarata: Madril, 2014.
- Zenbaiten artean. *Metodologías Participativas, Manual*. CIMAS: 2010.
- Zenbaiten artean. *La Pedagogía de la Decisión*. CIMAS – Sevillako Udala. Colección Construyendo Ciudadanía 10: Sevilla, 2006
- Moreno Mejías, A. *Creando Futuro*. Sevillako Diputazioa – CRAC: Sevilla, 2007.

6.4. Ipuinak:

• PEQUEÑO AZUL Y PEQUEÑO AMARILLO https://www.youtube.com/watch?v=_Z9QE5yFKjY
Leo Lionni, S.L. Kalandraka Ediciones Andalucia, 2012

• Ipuin hau gure mugikor edo tabletean deskargatuz gero, etxean lan egin ahalko dugu, eta gurasoek ipuina kontatuko dute, edo, ohiko rolak aldatuta, gure ikasleak kontatuko die ipuin hau gurasoei, eta eskolan ikasitakoa azalduko die. Deskargatzeko: <http://www.dadacompany.com/apps/por-cuatro-esquinitas-de-nada/>

• IPUINA: LAU IZKINA TXIKITXO (JÉRÔME RUILIER)

Laukitxo bere lagun Biribiltxoekin ari da jolasean.

Txirrin! Etxe handira sartzeko ordua da.

Baina Laukitxo ezin da sartu! Ez da biribila, atea bezala.

Laukitxo triste dago.

Asko gustatuko litzaioke etxe handira sartzea.

Orduan, luzatu, bihurritu egiten da, buruz behera jartzen da, okertu egiten da. Baina ezin da sartu, hala ere.

- Izan zaitetz biribil! - aholkatzen diote Biribiltxoek.

Laukitxo gogoz eta eginahalean saiatzen da.

-Sinetsi egin behar duzu!- adoretzen dute Biribiltxoek.

-Biribila naiz, biribila naiz, biribila naiz...- errepikatzen du Laukitxok. Baina ezin!

- Ba, orduan, izkinak moztu beharko ditugu! - erabaki dute Biribiltxoek.

O, ez! - protestatu du Laukitxok. Min handia hartuko nuke!

Zer egin dezakegu?

Biribiltxoak areto handian bildu dira. Luze eta luze hitz egin dute. Eta, azkenean, ulertu dute ez dela Laukitxo aldatu behar dena.

Atea da!

Orduan, lau izkina moztu dituzte, lau izkina txikitxo baino ez... eta, horri esker, Laukitxo etxe handian sar daiteke... Biribiltxo guztiekin batera.

https://www.youtube.com/watch?v=DBjka_zQBdQ (haurrek kontatua) edo

<https://www.youtube.com/watch?v=YqRSgJFbJ1c> (ipuin-kontalari batek kontatua).





6.5. Detektibe aztarnagabearen igarkizun-fitxa.

Igarkizunak

- Barrutik zuria, kanpotik berdea. Zer da?
(Madaria).
- Tortilla egiteko beharrezkoa duzu, zoaz oilategira aurkitu nahi baduzu.
(Arrautza).
- Marroixka eta txikiak, biribil eta zapalak, ilarraren lehengusu beltzaranak. Zein dira?
(Dilistak).
- Lehen mahastian zintzilik, orain tximur-tximur eginik. Zer da?
(Mahaspasa).
- Ilargia bezain biribila, zuri edo horia, eta esnez dago egina. Hau bai ez dela zaila. Zer da?
(Gazta).
- Gorri-gorria eta urazaren lagun handia. Zein da?
(Tomatea).
- Ogia izan aurretik, orea izan aurretik, irina izan aurretik, zer nintzen?.
(Garia).
- Biribil-biribila, kanpotik berdea, barrutik gorria, botoiez betea, jateko egokia.
(Sandia).
- Azala laranja, kapela berdea, lurpean bizi da, untxien platera. Zer da?
(Azenarioa).
- Horia du azala, barrua garratza, zukutzen ez baduzu, nahikoa jangaitza.
(Limoia).
- Lurpean jaioa, azalez itsusia, ganibetez zuritua, zartaginean frijitua.
(Patata).
- Biribil eta txikiak, berde-berdeak, egosi eta gero, zure platerean bero-bero. Zein gara?
(Ilarrak).
- Jaun bat hanka baten gainean eta txapel handi bat buruan, eta gehienetan zuhaitzen inguruan. Nor da?
(Perretxikoa / Txanpiñoia).
- Bana-bana, tximinoaren jana. Zer da?
(Banana).
- Hostoz aberatsa, baina ez naiz aza, nahiz eta dugun antza. Nor naiz?.
(Letxuga).
- Beroa berria naizenean, gogorra zahartzean, egunero ikusten nauzu mahai gainean. Nor naiz?
(Ogia).
- Gauza zuri-zuri bat. Edaten ari naiz. Zer da?
(Esnea).
- Kanaberatik sortua, elurra bezain zuria, Ameriketatik ekarria, ezitzeko edaria.
(Azukrea).
- Edatean esaten didate, esaten dizute, esaten digute. Zer da?
(Tea).
- Hurbil eta hurran nago, aurrena hautsi nazazu eta hurrena jan.
(Hurra).
- Hura andre dotorea, kapela berdea eta gona morea. Nor da?
(Berenjena)

6.6. Beharren eta desiren eskutitzak



ORDENAGAILUA ETA INTERNETERAKO SARBIDEA



TRATU EGOKIA ETA DISKRIMINAZIO EZA



INGUMEN GARBIA



TELEFONO MUGIKORRA



FRESKAGARRIA ETA HANBURGESA



JOLASTEKO ETA DESKANTSATZEKO AUKERA



ETXE EROSOA



MODAN DAGOEN ARROPA




OPORRAK HONDARTZAN



JANARI OSASUNTSUA



EDOZEIN ABUSUREN KONTRAKO BABESA



HEZKUNTZA



MEDIKUAK



TXIRRINDULA



GOZOKIAK



BITXIAK



MP3



HOTZERAKO ARROPAK



6.7. Mapak:

Petersen mapa, azpikoz gora.

<http://static.naukas.com/media/2012/05/1-PetersMap2.jpg>

Mercatorren proiektzioa.

http://en.wikipedia.org/wiki/Mercator_projection#mediaviewer/File:Mercator_projection_SW.jpg

Mundua gauez.

<http://www.thepoliticalcesspool.org/jamesedwards/wp-content/uploads/2014/05/Worldatnight.jpg>

Txinatarren mapa.

http://xcmoulds.com/upload/Image/contact_map/world_en.jpg

Mapen boterea.

http://www.dailymotion.com/video/x103nv2_proyecto-worldmapper-el-poder-de-los-mapas_school
(irakaslearentzako bideoa)

Beste mapa batzuk.

Neskek Lehen Mailako Hezkuntzan duten sarbidea.

<http://www.worldmapper.org/images/largepng/201.png>

Haurren desnutrizioa.

<http://www.worldmapper.org/images/largepng/182.png>

Haurren lana.

<http://www.worldmapper.org/images/largepng/135.png>






6.8 Ebaluazio dianaren eredua.

EBALUAZIO DIANAREN

Beti bere taldean dago

Hitz egiteko txanda errespetatzen du



Taldeari ideiak eskaintzen dizkio

Ahots tonua errespetatzen du



ESTÁ SIEMPRE EN SU GRUPO

RESPETA EL TURNO DE PALABRA

APORTA IDEAS AL GRUPO

RESPETA EL TONO DE VOZ



6.9. Ebaluazio-fitxa.

Kaixo! Haurren Eskubideen inguruan nahiz munduko hainbat tokitan dituzten egoeraren inguruan denbora bat lanean eman eta gero, ziur gauza asko bizi izan eta ikasi dituzula. Oso interesgarria litzateke zure iritziak gainerako taldekideekin partekatuko bazenitu. Horrela, besteen iritzietatik ere ikasi ahalko dugu, eta hurrengo abenturak hobetu! Animatzen zara?

Mesedez, irakurri galderak poliki, eta, gero, biribildu zure iritzi edo sentimenduarekin bat datorren erantzuna:

- Gure taldeak erakutsitako interesa eta motibazioa honelakoak izan dira:
 oso baxua baxua Tartekoa/Erdikoa altua oso altua
- Haurren Eskubideen inguruan tratatu ditugun gaiak honelakoak izan dira:
 oso baxua baxua Tartekoa/Erdikoa altua oso altua
- Jarduerak, dinamikak, jokoak honelakoak iruditu zaizkit:
 oso baxua baxua Tartekoa/Erdikoa altua oso altua
- Dibertsioa honelako osagaia izan da:
 oso baxua baxua Tartekoa/Erdikoa altua oso altua
- Haurren Eskubideen inguruan izan ditugun emaitzak eta lorpenak honelakoak izan dira:
 oso baxua baxua Tartekoa/Erdikoa altua oso altua
- Saioen iraupena honelakoa izan da:
 oso baxua baxua Tartekoa/Erdikoa altua oso altua
- Jarduerak egin ditugun tokiak honelakoak iruditu zaizkit:
 oso baxua baxua Tartekoa/Erdikoa altua oso altua
- Erabili ditugun materialak honelakoak iruditu zaizkit:
 oso baxua baxua Tartekoa/Erdikoa altua oso altua
- Hezitzailearen lana honelakoa iruditu zait:
 oso baxua baxua Tartekoa/Erdikoa altua oso altua
- Oro har, honela sentitu naiz:
 oso baxua baxua Tartekoa/Erdikoa altua oso altua

Balorazio orokorrak:

- Gehien gustatu zaidana:.....
- Gutxien gustatu zaidana:.....
- Kenduko nukeena:.....
- Zati batean aldatuko nukeena:.....
- Gehituko nukeen zerbait:.....
- Berdin izan zaidana:.....
- Partekatu nahi dituzun beste ideia edo iritzi batzuk:.....

Eskerrik asko zure lanagatik, ideientatik, laguntzagatik...!
 Laster arte!

Eskerrak ematen dizkiegu, bereziki, irakasle eta hezitzaileekin batera, jarduerak probatuz, baliozkotuz eta hobetuz material hau ontzen parte hartu duten haurrei:

- Rivas Vaciamadrیدهko (Madril) Haur Foroa
- Kukua – bazterketa-arriskuan dauden haurrei eskola-laguntza emateko proiektua, Getxon (Bizkaia)
- Agora – Sant Cugat (Katalunia)
- Mataróko Haur Kontseilua (Katalunia)
- Santiago Apóstol ikastetxea – Cabanyal (Valentzia)







ERALDATZEN IKASTEKO ZIRRARA

haurren eskubideak eta parte-hartzea

Parte hartzen ikasteko, parte hartu behar da, horregatik material honek parte hartze hori praktikan jartzera gonbidatzen zaitu eta baita parte hartze horren bidez mundua transformatzea ahalbidetzen duen emozioa sentitzeko aukera ematen dizu ere

